

Ekonomiako Gradua
2022-2023

GRADU AMAIERAKO LANA

ZAINTZA EKOSISTEMAK
LURRALDE PLANGINTZA IKUSPUNTU FEMINISTATIK
DEBA ETA ITZIAR HERRIEN HIRIGINTZA ANALISIAK

Egilea: Arocena Txurruka, Amaia
Zuzendaria: Martinez Tola, Elena

Bilbon, 2023ko ekainaren 22an



LABURPENA

Azken hamarkadan, ehundaka manifestazio, mahainguru eta tailer abiatu dira “Zaintzak erdigunera” lelopean. Erdigune politikora, batetik, hedabideen eztabaidetara eta gobernuen lehentasunetara. Eta erdigune fisikora, bestetik, etxeko pribatutasunetik herriko kale eta plazetara. Azken puntu honetan berebiziko garrantzia hartzen du Lurralde Plangintzak.

Zaintzak espazio publikoan egin daitezzen, gure komunitateetako hirigintza birplanteatu behar dugu. Hirigintza feministaz baliatuz, gure lurraldeko mugikortasuna, segurtasuna, etxebizitza, jarduera ekonomikoa, ekipamenduak... eraldatzeko eman beharreko pausoak irudikatuko ditugu; eta eraldaketarako bidean, gure komunitateetan aurrera pausoak eman ditzakegula erakusteko, Deba eta Itziar herrietan Mapa Moreak sortu ditugu parte-hartze prozesu baten bitartez.

HITZ GAKOAK

Zaintza ekosistemak, Zaintza, transbertsal, Lurralde Plangintza, parte-hartzea.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Zaintza Ekosistemak	6
2.1. Zaintza ulertzeko abiapuntua: Zaintzaren balio publikoa	6
2.2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektua	7
2.3. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren azken aldarriak	8
3. Lurralde Plangintza ikuspuntu feministatik	9
3.1. Nolakoa izan da hirigintza historikoki?	9
3.2. Hirigintza modernoa	10
3.3. Ikuspuntu berri bat kontutan hartzearen garrantzia: generoa	11
3.4. Genero ikuspegia Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan	12
3.5. Hiri zaintzailea	13
4. Hirigintza feminista eraikiz	14
4.1. Hirigintzaren eduki sustantiboa	14
4.1.1. Mugikortasuna	14
4.1.2. Espazio publikoa eta segurtasuna	16
4.1.3. Etxebizitza	18
4.1.4. Jarduera ekonomikoa	20
4.1.5. Ekipamenduak, merkataritza eta aisia	20
4.2. Plangintza prozesua	21
4.2.1. Datu estatistikoak eta ikasketa kualitatiboak	22
4.2.2. Parte-hartzea	23
4.2.3. Erabakiak hartzeko modua irudikatzea	23
4.2.4. Gastu publikoa eta inbertsioa	24
5. Deba eta Itziar herrien hirigintza analisiak	25
5.1. Helburuak	26
5.2. Aplikatuko dugun teoria	26
5.2.1. Aurrekariak: beste leku batzuetako esperientziak	26
5.2.2. Zer da Mapa Morea	27
5.3. Herri mailan egindako proiektua pausoz pauso	29
5.3.1. Datu estatistikoak eta ikerketa kualitatiboak	29
5.3.2. Parte-hartzea	30
5.4. Debako eta Itziarko herriguneetako Mapa Morea	35
5.4.1. Mapa Moreak	35
5.4.2. Eraldaketa proposamenak	38
5.4.3. Hausnarketa garrantzitsuenak	40
6. Ondorioak	41
7. Bibliografia	42

TAULAK

Taula 1: Segurtasun-pertzepzioa generoka (2008), ehunekotan	17
Taula 2: Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa	20
Taula 3: Debako >=16 urteko biztanleriaren langabezi tasa, 2020	30
Taula 4: Debako batez besteko pertsona-errenta (eurotan) sexuaren arabera, 2019	30

IRUDIAK

Irudia 1: Zaintzaren katean parte hartzen duten agente edo esfera ezberdinak	6
Irudia 2: Debako herrigunea	25
Irudia 3: Itziarko herrigunea	25
Irudia 4: Berriketean aldizkarian idatzitako testua, 2022ko ekaina	31
Irudia 5: Debako parte-hartze tailerreko kartela	32
Irudia 6: Itziarko parte-hartze tailerreko kartela	32
Irudia 7: Profila zehazteko txantiloia	33
Irudia 8: Segurtasuna eta autonomia, txantiloia	33
Irudia 9: Mugikortasuna eta irisgarritasuna, txantiloia	33
Irudia 10: Zaintza espazioak, txantiloia	33
Irudia 11: Emakumeen presentzia, txantiloia	33
Irudia 12: Debako herriguneko Mapa Morea	36
Irudia 13: Itziarko herriguneko Mapa Morea	37
Irudia 14: Ikus-eremua hobetzeko ispilua	38
Irudia 15: Argiztapena hobetzeko ispiluak Norbegian	38
Irudia 16: Argiztapena hobetzeko ispiluak Sevillan	38
Irudia 17 eta Irudia 18: Taldean esertzea baimentzen duten hiri-altzariak	39
Irudia 19 eta Irudia 20: Jolas parke estaliak	39
Irudia 21: Eremu publikoetan jatea baimentzen duten hiri-altzariak	39

1. Sarrera

Gure bizilekuan nagusitzen den Zaintza sistemaren ereduak zuzenki eragiten du gure jendartean ematen diren zapalkuntza anitzetan: klase zapalkuntzatik hasi, arrazakeria eta xenofobiatik pasa, eta indarkeria matxistaraino. Zentzu honetan, jendarte justuago baterako bidea irudikatzeko intentzioarekin sortu da lan hau, Zaintza Ekosistemak eraldaketarako pausu garrantzitsu bezala aurkeztuz.

Lanaren helburu nagusia gaur egun Zaintza Ekosistemen inguruan egiten diren ekarpenak bateratzea eta, hauetan Lurralde Plangintzak duen garrantzia azpimarratzea da, hirigintza feministaren oinarriak aztertuz eta gure lurraldean eman beharreko pausoak finkatuz.

Gaia hobeto lantzeko asmoz, eta material osagarria sortu nahian, Debako eta Itziar udalerrietan hirigintza proiektu bat eraman da aurrera. Proiektu honen helburua Zaintza Ekosistemen sozializazioa egitea eta eraldaketarako lehen pausoak irudikatzea izan da eta, horretarako, parte-hartze prozesu baten bidez, Mapa More bana garatu da udalerrri bakoitzean.

Proiektu honetan eman diren pausoak beste herri batzuetan aurrez egindako beste lan batzuetan oinarrituta dauden arren, kasu honetan, zeuden baliabideak kontuan hartuz, prozesuaren diseinu propioa egin behar izan da. Hasteko, aurrez aipatutako proiektuaren helburu nagusiak irudikatu ondoren, baliabideak murrizak izanik, ondo zehaztu behar izan nuen zein izango zen barneratuko nuen edukia: segurtasuna eta autonomia falta, mugikortasun eta irisgarritasun falta, Zaintza espazioak eta emakumeen presentzia dira, beraz, azterketa honetan landutako gaiak.

Gai hauekin lotutako datu estatistiko ezberdinak bildu, eta Deba eta Itziar herrien hasierako ikerketa kualitatibo bat egin ostean, parte-hartze prozesua abiatu nuen. Lehen pausoa udal teknikariek elkartzera izan zen. Nire lana aurkeztu nien, Zaintza Ekosistemi buruzko puntu garrantzitsuenak azaldu nizkien eta, batez ere, beren lanetan ikuspuntu feministak duen garrantzia transmititu nien. Gaiaren sozializazioarekin jarraitu nahian, herri aldizkaria ere lanari buruzko informazioa zabaldu zen.

Ondoren, bi tailer ezberdin antolatu nituen, Deban bata eta Itziarren bestea. Bertan, herritarrekin Zaintza Ekosistemi buruz nekiena partekatzen nuen bitartean, euren iritziak jasotzeko txantiloiak betetzera gonbidatzen nituen. Aurrez aipatutako lau ildoak banan banan landu genituen: segurtasuna eta autonomia falta, mugikortasun eta irisgarritasun falta, Zaintza espazioak eta emakumeen presentzia.

Partaidetza prozesutik ateratakoa, udalean eskuratutako materiak desberdina, eta nire kriterio propioa uztartuz, Deba eta Itziar herrietako Mapa Moreak eratu ditut eta eraldaketa proposamen batzuk bildu ditut.

Lan honetan, beraz, asko izan dira landutako gaiak, denak hasieran aipatutako helburua lortzeko asmoz jasoak. Hasteko, Zaintza Ekosistemi buruz hitz egiten dugunean zeri buruz ari garen azalduko da. Horretarako, Zaintzaren balio publikoaz hitz egingo dugu, eta Euskal Herrian mahai gainean jarritako alternatibari buruz arituko gara: zaintza publiko-komunitarioa.

Ondoren, Lurralde Plangintzak ekosistema horietan duen garrantzia azalduko dugu. Hirigintzak historikoki izan duen bilakaera aztertu, eta gaur egun genero ikuspuntua barneratzearen garrantziaz arituko gara, hiri zainzaileak nola eraikitzen diren argitzeko asmoz.

Hirigintzaren gai desberdinak ikuspuntu feministatik aztertuko ditugu, banan bana (mugikortasuna, espazio publikoa eta segurtasuna, etxebizitza, jarduera ekonomikoa, ekipamenduak, merkataritza eta aisia), eta hauen eraldaketarako plangintza prozesua irudikatuko dugu.

Bukatzeko, aipatu bezala, landutako eduki teorikoan sakontzeko asmoz, edukia lurreratu nahian, eta hirintzak gudan duen eragin zuzena adierazi edota frogatu nahian, Deba eta Itziar herrietako Mapa Moreak eratu ditut. Lan honek, mapa horiek sortzeko emandako pausoak eta horietatik ateratako hausnarketak jasotzen ditu.

2. Zaintza Ekosistemak

Emakumeen eta gizonen arteko genero-desberdintasunak agerian geratzen dira egiten dituzten jardueretan, hiria erabiltzeko eran edota beren bizitzak interpretatzeko eran, baina emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzako desberdintasun nagusia zainketa-lanetan emandako denbora eta duten erantzukizun-maila dira. Katalunian, 2011ko Denboraren Erabilerei buruzko Inkestaren datuen arabera, emakumeek, astean, gizonek emandakoaren bikoitza ematen dituzte etxeko lanetan eta familian, guztira 28 ordu eta 21 minutu; gizonek, berriz, 14 ordu eta 35 minutu (Gutiérrez, 2018).

Arrakala honek eragin zuzena du beste hainbat genero diskriminaziotan, besteak beste, soldata arrakalan, botere postuetako errepresentazioan eta indarkeria matxistan.

Zaintza Ekosistemak lantzea eta administrazio publikoetatik estrategia berriak garatzea ezinbestekoa da, beraz, arazo honi konponbide bat emateko. Eta argi izan behar dugu, Zaintza lanak ondaindu gabekoak edo gaizki ordainduak eta lan balditza miserabledunak izaten jarraitzen duten bitartean, emakumeek jarraituko dutela lan hori egiten, prekarizaziora kondenaturik.

2.1. **Zaintza ulertzeko abiapuntua: Zaintzaren balio publikoa**

Zaintza hizki larriz aipatzerakoan, ez gara zaintza aktibitate konkretu batez ari, baizik eta jendartean kalitatezko bizitza sustengatzeko egiten diren lan multzo eta kate konplexuez ari gara (Paricio, 2019). Oso agerikoa da menpekotasun egoeran dauden pertsonen bueltan egiten denean (hirugarren adina, haur eta aniztasun funtzionala dutenen kasuan) baina, zaintza, hori baino gehiago ere bada. Izan ere, inter-dependienteak garen heinean, denok dugu tamaina batean edo bestean zainduak izateko eta zaintzeko beharra (Gilligan, 2013). Modu teorikoan, kate honetan agente edo esfera ezberdinak hartzen dute parte: arlo publikoak, merkatuak eta komunitateak (Daly & Lewis, 2000; Tobío & al., 2010).

Irudia 1: Zaintzaren katean parte hartzen duten agente edo esfera ezberdinak



Iturria: gipuzkoa.eus

Zaintza Ekosistema, beste sektore asko bezala, aipatutako hiru aktoreek osatzen duten arren, guztiz bereizten da beste sektoreengandik. Zaintza-lanek autokontsumorako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzte eta ez merkataritza-trukerakoak. Ez dute produktibitatea handitzea bilatzen, eta ez dituzte lehiakortasun-balioak sustatzen. Karga emozional handia dakarte (ez du zertan beti positiboa izan) eta, merkatuan ez bezala, harremanetan eta giza beharretan oinarritzen den etikari erantzuten diote.

Merkatuak, beraz, jendarte kapitalista batean, ezin du Zaintza errekonozitu, eta horrexegatik, administrazio publikoa da zainduak izateko eta zaintzeko dugun eskubidea bermatu behar duena.

2.2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektua

Zaintza Ekosistema publiko-komunitarioak proiektua eraman zuen aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020. urtean, Deustuko Unibertsitatearekin, Hiritik At Koop. Elk. Txikiarekin eta Parean Berdintasunerako Elkartarekin elkarlanean. Proiektu honen helburua Covid-19aren krisiaren ondorioz eman ziren erantzun publiko eta komunitarioetatik ikastea da, Zaintza Ekosistema trinkoagoak antolatzeko bideak proposatzeko.

Ikerketa-ekintza parte-hartzailean oinarritutako prozesu bat planteatu zen. Krisi-egoeran dauden herrietan sortutako esperientzien eta zainketen arloko esperientzien azterketa egin zen, ondoren, sortutako Zaintza laborategien bitartez esperimentazioan aritu ziren, praktika onak identifikatu eta partekatu eta azkenik ebaluazioa eta sistematizazioa emango zen.

Proiektu honen asmoa politika publikoen kudeaketa hobetzea zen, Gipuzkoako gizarte guztiarentzat onuragarria delakoan. Zehazki, Zaintza lanetan dabiltzan pertsonen lan baldintzak hobetzea zen asmoa.

Zaintza Ekosistema publiko-komunitarioak proiektuaren bitartez hurrengoak lortu zituzten:

- a) COVID-19ak eragindako konfinamendu garaian sortutako Zaintza sareak ikertzea eta ulertzea. Bereziki erakunde publikoek horiekin izandako lotura eta harremana.
- b) Fenomeno konkretu horretaz gain, erakunde publikoek Zaintza modu integralean landu behar dutela ondorioztatzea eta elkarlan publiko-komunitarioa sustatzeko gakoak identifikatzea.
- c) Prozesuaren emaitzak erakunde publikoekin, pribatuekin eta herritarrekin hausnartu eta konpartitzea
- d) Hainbat herri eta auzotan, Zaintza Ekosistema publiko-komunitarioak indartu edo abiatzeko oinarriak jartzea

Komunitatea sortzeko proiektu lokal eta zehatzetan lan egin behar da. Honek esan nahi du, nahiz eta estrategia komun edo orokor bat izan, lan komunitarioa tokian-toki gauzatu behar dela, esperientzia

konkretuen bidez. Gainera, auzo edo inguru ezberdinetan, behar ezberdinak dauden heinean, tratatu beharreko gaiak ere espezifikokoak izan behar dira. Bestalde, esfera publiko eta komunitarioaren arteko elkarlana sustatzeak emergentziaz edo larrialdi egoeran lan egiteaz baino haratago doan konpromisoa behar du. Lan publiko-komunitarioa marko egonkorra izan beharko luke, inguru bakoitzean dauden aukera eta baliabideak ezagutu ahal izateko, elkarren arteko konfiantza sortzeko, eta behar denean elkarlana burutzeko (Zuñiga & al., 2022).

Pandemiak zaintzaren inguruko hausnarketa eztabaida politikoaren erdigunean kokatu du. Era berean, zaintza sareen sorrerak beste hausnarketa bat ekarri du: herri mugimenduaren eta dinamika komunitarioen balioa eta potentziala norainokoa izan daiteken. Zaintza sistema komunitario bat gauzatzeko bidean asko izango dira eman beharreko pausuak, bai administrazio publikoen aldetik, zein herritarren partetik. Erantzukizuna beraz partekatua izango da, instituzioen eta herritarren konpromisoa behar du, baina arlo publikoa da lidergoa eraman behar duena zaintza sistemaren aldaketa bilatzen ari bagara (Zuñiga & al., 2022).

2.3. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren azken aldarriak

Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba nazional baterako deialdia egin du udazkenara begira: Zaintza Greba Orokorra. Greba honen motibazioak eta errebindikazioak asko diren arren, ideia nagusia argia da: Zaintza-lanek familiarizatuak, feminizatuak eta arrazializatuak egoteari utzi behar diote.

Horretarako, administrazio publikoak dagokion erantzukizuna bere gain hartu behar duela diote: zaintza-lanen parte bat egin eta Zaintza baldintza duin eta bidezkoetan eskaini ahal izateko baliabideak jarri behar ditu. Bestalde, zaintzari loturiko zeregin guztiak (eguneroko lanak, janaria prestatzea, nork bere etxea garbitzea, erosketak egitea, kasu) ezin direla kanporatu uste dute. Hala ere, kanporatu ezinak ez duela esan nahi familiaren gain utzi behar direla azpimarratzen dute: pedagogia feminista egin behar da komunitarioa zer den zehazteko, eta zaintza-lana komunitatean modu bidezkoan banatzeko lan egin behar da; bestela, emakumeen gain geratuko da berriro ere hein handi batean (Bizitzak erdigunean, 2022).

Zaintza sistema publiko-komunitario bat defintzeko, ezinbestekoa da:

- Premiei erantzutea, hau da, gaur egun prekarioenen eta kolapsatuta dauden egoerei aurre egitea.
- Ongizate estatuaz harago doazen ereduez kolektiboki pentsatzea eta hauek imaginatzea, sistema kapitalista heteropatriarkal eta kolonialistari aurre eginez, eta Zaintza kokatuz bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial baten ardatz gisa.

3. Lurralde Plangintza ikuspuntu feministatik

Gure lurraldea ez dago zaintzeko eta zainduak izateko prestatua. Hirigintza modernoak gizaki abstraktu bat hartzen du oinarri gisa, eta harentzat soilik eraikitzen du. Abstrakzio hau sortzaileen ezaugarrien errepresentazio bat da: gehienak, gizon zuri, europarrak, gazteak eta osasuntsuak. Horrela, gure hiriak, besteak beste, ikuspegi androzentriko baten pean daude eraikita. Ikuspegi hori unibertsala izango balitz bezala tratatu izan da eta, ondorioz, hirietan banaketa bitarra betikotu da: maskulinoa, produktiboa, norma gisa ulertu, eta eremu publikoan ezarri izan da, eta pribatua, erreproduktiboa, salbuespen bezala tratatu izan da, hauek espazio femeninoak zirela finkatuz (De Simone, 2020).

Hirigintza feministak zainketen garrantzi soziala aldarrikatzen du, baina horrek ez du esan nahi emakumeak zaintzaile gisa sailkatu behar direnik; pertsona guztiak garela besteen eta ingurunearen mendeko jartzen du mahai gainean eta, beraz, zaintzek erantzukizun kolektiboa izan behar dutela. Hiria ikuspegi feministatik birpentsatzea, logika produktibista, sozial eta politikoki murriztaile batetik espazioak sortzeari uztea da, eta erabiliko dituzten pertsonen lehentasuna emango dieten inguruneetan pentsatzen hastea. Horretarako, lehentasunak errotik aldatzea proposatzen da, hiriko espazioak eta denborak ulertzeko eta hiri-paradigma berri bat eraikitzeko (Gutierrez, 2018).

3.1. Nolakoa izan da hirigintza historikoki?

Edwar Sojak dioen moduan, gaur egun gure lurralde eta hirien inguruan erabakiak hartzea aztertu nahi badugu, modernoak izaki, aurretik gertatutakoaren eta egun gertatzen denaren arteko aldeak ezagutu beharko ditugu. Horretarako, hirigintza garaikidearen azterketa bat egin beharko da eta garai bakoitzean nor eta zergatik izan duen erabakiak hartzeko boterea aztertu eta ulertu beharko dugu (Telleria, 2014).

Hirien hasiera Kristoren aurretik hasi zen, 7000 urte lehenago, tribu nomadek bizimodu sedentarioa ezarri zutenean, etxaldeak landuz eta inguruko herriekin truke-ibilbideak irekiz.

Egitura sozial horretan, lurraldeak mugagabeak izatetik, egonkorak, definituak eta jabetza pribatuak mugatuak izatera pasa ziren. Lur pribatuak bi esparrutan banatu ziren: lur produktiboa, landareak landatzeko eta animaliak hazteko, eta askotan gizonen eskuak behar ziren indartze-lanetarako, eta ugalketa-lurra, non tribuko emakumeek besteen etxeko zainketak garatzen zituzten (janaria prestatzea, lo egitea, erditzea, elikatzea, haztea). Ondorengotza gero eta premia handiagoa zen, nekazaritzarako eskuak behar zirelako, eta, ondorioz, emakume gazteak tribu-arte trukeko elementu bihurtu ziren. Ugalketa-eremua jabetza pribatuen leku bihurtu zen (seme-alabena, emakumeena, objektuena, tradizioena eta ordaindu gabeko lanarena), eta ekoizpen-eremua, bestalde, partekatuaren eremu (merkatua, trukea, ordaindutako lana, komunitatea, ondasun publikoak eta ideiak); lehena, eremu

pribatua, berezitasunerako eta salbuespenerako leku gisa, eta bigarrena, eremu publikoa, komunitaterako eta normaltasunerako leku (De Simone, 2020).

3.2. Hirigintza modernoa

Mendebaldeko gizarte garaikide modernoa hiru dinamika sozio-antropologiko elkartzean sortu zen; indibidualismoa, arrazionaltasuna eta gizarte ezberdintasuna (Asher, 2004). Indibidualtasunaren pentsamoldearekin, munduaren errepresentazioa ikuspegi kolektibotik egin ordez, pertsona bakoitzaren ikuspegitik egitera pasa zen. Arrazionaltasunarekin ohitura eta tradizioen jakintza pixkanaka arrazoiarengatik ordezkaturia izan zen, eta gizarte desberdintzeak gizarteko taldekako funtzio bereizketa sortu zuen. Erdi Aroan, Europan, hiru dinamika horiek elkartzean gizarte modernoaren sorrera ahalbidetu zen, eta horrela lehen hirigintza iraultza gertatu zen (Telleria, 2014).

Modernitatearen hasieran, burgesia ez-hegemoniko batekin, diskurtsoa subiranotik etorri zen, hiriaren berrikuntza handiekin, parkeen, bideen, etorbideen eta abarren eraikuntzarekin. Espazio publikoa demokratikoagoa bihurtu zen. Hala ere, elite nagusiaren eta langile industrialen arteko akordioak ez zituen baztertuen beste segmentu batzuk barne hartzen (Salcedo, 2002).

Aipatutako dinamikek, argi uzten dute gorputz-aniztasunak, neurri, altuera, zabalera, gustu eta ohitura ezberdinek ez zutela lekurik hiri-proiektu modernoan (De Simone, 2020).

Bigarren hirigintza iraultza industrializazioarekin batera gertatu zen. Hiri horietan pertsonen, informazioaren eta ondareen mugikortasunak garrantzia handia hartu zuen. Lehen gauza produkzioarako, kontsumorako eta merkatu trukeetarako hiriak egokitzea izaten zen (Asher, 2004).

Gaur egun, Talde zapaltzaileak gai izaten ari dira gainerako gizarte-eragileak zenbait espazioren erabilera kanpo uzteko, enklabe batzuk sortuz. Enklabe horietan, espazio publikoa gizartea elkartzeko eta herritarrak eraikitzeko gune gisa ulertzen da, baina gizarteko zenbait segmentutara mugatzen da soilik. Espazio publiko post-modernoa boterea adierazteko eta erabiltzeko lekua da, baina zapalduak soilik esperimendatzen dute; gainerakoentzat, modernitatean bezala, herritarrak eraikitzeko eta elkarrizketa sozialerako espazioa da (Salcedo, 2002).

Hirigintza modernoaren jatorria ezaguturik, ulergarria da honek duen genero ikuspuntu falta; legedia, edo behintzat, legedi aurrerakoia, mugimendu sozialen ondorioz sortzen baita.

Espainiar Estatuko Gorenaren epaiak esplizituki adierazten badu ere gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa egungo hirigintzaren printzipio bat dela, esaten du, halaber, genero-eraginaren ebaluazioei buruzko Estatuko legeria ez dela osagarri gisa aplikatzen hirigintzan generoaren arloan legerik egin ez duten autonomietan. Beraz, genero-eraginaren ebaluazioei buruzko Estatuko legeriak ez du behartzen hura lantzerako hirigintzako generoari buruzko legeak berariaz egitea

erabaki ez duten autonomietan. Hau da, genero-eraginaren ebaluazioak hirigintzan berdintasun-printzipioa aplikatzeko tresna espezifiko gisa erabiltzea legeria autonomikoen arabera izango da (Sánchez de Madariaga, 2020).

3.3. Ikuspuntu berri bat kontutan hartzearen garrantzia: generoa

Generoa, biologia fisikoari dagokion zerbait naturala izatetik urrun, nagusi diren baldintza kulturalak birsortzen duten eszenatokiaren aurrean iterazioz irudikatzen den rola da. Beraz, argudia dezakegu, generoaren eguneroko eraikuntza eta horrek hiriko bizitzan dituen ondorioak denboran zehar sozialki eraikitako patroiek baldintzatzen dituztela, eta espazio fisikoan irudikatzen direla, eskailera, autobus-geltoki, banku eta parkeekin (De Simone, 2020). Generoa performatiboa da modu iteratiboan (Butler, 2007), eta performance honen agertokia hiria da.

Hiria eta hirigintza generoaren ikuspegitik aztertzea genero-ikasketen korrante akademiko berrietan txertatzen da. Genero-azterketak, arlo akademiko bat baino gehiago, zeharkako ikuspegi bat dira, eta 1960ko hamarkadatik hainbat eremu akademikoren oinarriak eraldatuz joan dira.

Genero-azterketek agerian utzi dute genero-estereotipoetan eta munduaren ikuspegi androzentrikoan oinarritutako zenbait kontzepzio, pertsonen egitura mentaletan sustraituta daudenak, askotan implizituki dauden ezagutzaren oinarriak sostengatzen dituztela. Erakutsi dute esperientzia maskulinoa (eta zuria eta klase ertainekoa) esperientzia unibertsal gisa eraikitzen dela, esperientzia partikular bat baino ez dena arau bihurtuz, eta gainerako pertsonen ikuspuntuak arauaren desbideratze gisa ikusiz (Sánchez de Madariaga, 2009).

Orokortasunak subjektu erreala ezkututzen du, zeinak bere beharrekin neutraltasun faltsua konformatu duen. Cristina Carrascoren arabera, unibertsaltasuna herritartasun-eskubideen subjektua maskulinoa dela ezkutatzeko modu bat da. Funtsezko arazoa da herritarrak, eta, beraz, hirirako eskubidea eta hiria definitzeko lehentasunak, mundu publikoa, merkatuan parte hartzea eta gizonei esleitutako espazioak erreferentziatzen hartuta eraiki direla eta, beraz, etxeko (emakumezko) espazioa ez dago sartuta herritartasun kategorian (Muxí & al., 2011).

Hiri-proiektu orok erabiltzaile ideal eta abstraktu batentzat diseinatu izatea saihestu behar du. Desberdintasunen idealizazioak eta abstrakzioak beti itzaliko dituzte gutxietsitako gutxiengoak. Genero-kontzientzia duen hirigintzak onartzen du ez dagoela gizon gisa jaiotako eta zahartzeko modu bakar bat, ezta emakume gisa egiteko modu bat ere. Bizi ditugun desberdintasun laboralek, etnikoek, identitarioek eta sinbolikoek zehazten dituzte espazioko gorputzak. Generoa eraikuntza soziala den bezala, hiria eta hiri-espazioa ere hala dira. Hiria eraikuntza fisiko eta kulturala da, bertako biztanleen bizitza baldintzatzen duena eta haien arteko trukeen kalitatea zehazten duena (De Simone, 2020).

Laburbilduz, hirigintza ez da neutroa generoaren ikuspegitik. Hirigintzak hobetu edo kaltetu egin dezake emakumeek eremu publikoan eta pribatuan dituzten erantzukizunak gauzatzeko modua. Hirigintza-planak idatzi eta erabakiak hartzen dituzten pertsonak ez badute hasieratik beren azterketetan eta proposamenetan generoaren aldagaia aintzat hartzen, hirigintza-garapenerako aukerak emakumei neurriz kanpoko kaltea eragin diezakete (Sánchez de Madariaga, 2004).

3.4. Genero ikuspegia Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan

Eremu geografikoen eraldaketa, okupazioa eta erabilera bideratzeko ekintza hitzartuen multzoa dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, eta komunitateen garapen sozioekonomikoa bultzatzea dute helburu (Jordan & Babatini, 1988). Herraminta honek duen garrantzia kontuan izanik, genero ikuspegia barneratzearen garrantziaz haunartu dute eta horretarako Euskal Autonomia Erkidegoan eman beharreko pausuak irudikatu dituzte Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Genero Politiken UNESCO Katedran.

Genero-ikuspegia lurralde antolamenduan eta hirigintzan txertatzeko, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira (Sanchez de Madariaga, 2016):

1. Lurraldea planifikatzea, egiten diren erabilerak –batez ere egunerokotasunerako beharrezkoak direnak– edo denbora-tarteak ahal den neurrian laburtzeko.
2. Hiri konplexua eta gertutasunekoa sustatzea, behar bezala hornitutako auzo seguruetan oinarritua; auzo horiek garraio publiko bidez konektatuta egongo dira hiriko eta lurraldeko beste zatiekin.
3. Behar adina dentsitate izango duen eta erabileren beharrezko nahasketa ahalbidetuko duen hiri-eredu bat sustatzea.
4. Garraioaren plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, jarduera horietan mugikortasun-jarraibideak, bidaiatzeko modua, eta emakumeek egiten dituzten joan-etorrien denbora eta ordutegi arloko mugak kontuan hartuta.
5. “Zaintzaren mugikortasuna” sustatzea, beste pertsona batzuen zaintzarekin eta etxearen mantenuarekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora-tarte txikienean egin ahal izan daitezela bermatuz.
6. Lurralde- eta hiri-plangintzan eremu publikoko segurtasuna funtsezko eskubide gisa txertatzea.

Hiri-berronertzeko ekintza bat garatzean, ikuspegi interseksionala barneratu behar da; kontuan izan behar da emakume talde ezberdinen errealitatea eta hauen arteko desberdintasunak diagnostikoetan landu eta islatu behar dira. Honek, beren problematika, espektatiba eta beharrei erantzun espazifikoa ematen dien estrategiak garatzea baimenduko du.

Udal batzuek beren estrategietan emakumei zuzendutako neurriak gehitu dituzten arren, emakumeen arteko aukera-berdintasuna suposatuta dute, eta beraz, neurri horiek ez datoz bat jarduten

den eremuetan duten benetako problematikarekin, edo soilik modu partzialean erantzuten diete (De Gregorio Hurtado, 2019).

3.5. Hiri zaintzailea

Hirigintza feministak ehundaka neurri aldarrikatzen ditu, baina hiriaren transformaziorako egiten duen proposamen nagusia Zaintza erdigunean jartzea da. Blanca Gutiérrez Valdiviak (Gutiérrez, 2018) hiri zaintzailea aurkezten digu, arloz arlo, hiria nolako izan beharko litzatekeen deskribatuz:

- A. Espazioak malguak izan behar dira eta pertsonen beharretara egokitu behar dira, ez pertsonak espazioaren baldintzetara.
- B. Espazio publikoak zaindu behar dira, pertsonak espazioen segurtasuna hautematen dute, ondo seinaleztatuta eta argizatuta daudelako.
- C. Ezin da espazio publikoen gehiegizko erabilera egiten duten eta kutsadura, istripu eta bide-segurtasun falta indize handiak eragiten dituzten ibilgailu motordunen nagusitasunik egon, batez ere adinekoentzat eta haurrentzat.
- D. Ezin dira auzokoak kanporatu gehiegizko alokairu-kontratuengatik, espekulazioagatik eta jabetza pribatua bakarrik zaintzen duten araudiengatik; etxebizitza duina lortzeko aukera eman behar da, bidezko baldintza ekonomikoetan, eta familia nuklear hetero-patriarkalaren bizikidetzatik haratago bizitzeko eredu desberdinak sustatuz.
- E. Pertsonak askotarikoak garelara onartzen da, batzuetan gaixo gaudela, min kronikoak ditugula eta bizi-zikloko etapa desberdinak igarotzen ditugula, eta, horren ondorioz, ez garelara bat etortzen ezarritako produktibitate-erritmo eta -mailekin, eta frustrazioak, beldurrak eta gure autonomia murrizten dutela hiriaz gozatzeko orduan.
- F. Hiriak ezin du mugarik gabeko lurralde-, energia- eta ingurumen-baliabiderik kontsumitu.
- G. Aisialdirako eta kirol-jardueren aniztasunerako espazio hornituak eskaini behar dira, eta kanpoko espazio publikoetan edo eguraldi txarretik salbu pertsonen arteko harremanak erraztu behar dira, bertan egoteko, esertzeko, hitz egiteko eta harremanak izateko, inolako merkataritza-jardueraren bitartekotzaren beharrik gabe.
- H. Zaintzeko aukera ematen behar dizu, beharrezko euskarri fisikoa ematen dizulako dagozkion zereginak garatzeko, hala nola erosketak egiteko, haurrak eskolara eramateko, gaixoei osasun-zentrorara laguntzeko, etab.

4. Hirigintza feminista eraikiz

Gure hiriak feminismotik eraiki behar direla ulertzeko ezinbestekoa da hiriaren pertzepzio berri bat planteatzea.

Hiria, ideia edo sistema konplexu gisa ulertzen badugu, hau da, organismo bizi gisa, eta ez bakarrik, denbora luzean garatutako gertaera zehatz gisa, hiria gure kulturaren oinarri den gizarte antolatu eta zibilizatuaren matrizeztat hartu dezakegu, eta horrenbestez, hiriak hirigintzara bideratzen gaitu.

Bestalde, hiria, bere esentzian kontsideratua, habitat sozializatu baten zati garrantzitsua da, eta habitagarria bada bakarrik lortzen du bere osotasuna. Ez bakarrik fisikoki, baita espiritualki ere, oroimen indibidual eta kolektiboaren parte izanik (Baldellou, 2020).

4.1. Hirigintzaren eduki sustantiboa

Emakumeek hiri-eremuetan duten bizimoduari buruzko hipotesiak eta aurreiritziak zalantzan jartzean, hiri-garapen jasangarriko eta genero-kontzientzia duen estrategia batek, lehenik eta behin, zalantzan jarri beharko luke familiak senar, emazte eta bi edo hiru seme-alabaz osatuta daudela; bigarrenik, etxeak unitate sozioekonomiko gisa funtzionatzen duen, non berdintasuna dagoen baliabideen kontrolean eta erabakiak hartzean; eta, hirugarrenik, etxearen barruan, etxearen banaketa argia dagoen.

Hirien hazkundera ondasun gisa ulertzen diren textuinguruan, hiriak gero eta garaiagoak, handiagoak eta populatuagoak dira, naturak aurkako erakusten digun arren. Hiriak, natura bezala, biodibertsitatea babestu behar du; jendartea dibertsoa izan behar da elkartzeko moduetan, tamainan, kulturaren, autonomian eta mendekotasunean. Ez da zentzuzkoa, bere izaeraren ikuspegitik (artifiziala), alternatiba posibleak bertan behera uztea edo daudenak ezabatzea horietako bat lehenesteagatik. Bestalde, argi dago, Ban Ki-moon NBEko idazkari nagusi ohiak ohartarazi zuen bezala, iraunkortasun globalaren aldeko borroka hirietan irabazi edo galduko dela (Baldellou, 2020), eta horrexegatik, horietan jarriko dugu fokoa.

Azalpenak argiak izan daitezzen, hiria eraikitzeke egungo moduek gizonentzat eta emakumeentzat dituzten ondorio bereizgarriak ikusiko ditugu, edozein planen ohiko antolaketari jarraituz, hau da, gai sektorialen arabera (Sánchez de Madariaga, 2004) eta, betiere hiri hobe bat eraiki nahi duen ikuspegi berri batetik, eta ez egungo ereduak sor ditzakeen akatsak aldaketa txikiekin hobetuz (De Simone, 2020).

4.1.1. Mugikortasuna

Emakumeek eremu publikoan zein pribatuan egiten dituzten zeregin ugarien ondorioz, haien mugikortasun-jarraibideak eta gizonenak desberdinak dira, besteak beste, Estatu Batuetan, Erresuma

Batuan, Espainian edo Alemanian egin diren mugikortasunari buruzko zenbait ikerketen arabera. Herrialde guztietako ebidentzia enpirikoak genero-desberdintasun handiak eta emakumeekiko kalte sistematikoak erakusten ditu honako alderdi hauetan (Sánchez de Madariaga, 2004):

- Joan-etorrien arrazoa: emakumeek arrazoi anitzagoengatik bidaiatzen dute.
- Bidaien jarraibide espazialak: emakumeek mugimendu poligonalak egiten dituzte, eta ez pendularrak (gizonen mugimenduak joan-etorrikoak izaten dira; emakumeek, berriz, hiri-espazioko hainbat lekuren arteko desplazamenduak kateatzen dituzte, bata bestearen atzetik, familia-bizitzarekin eta enpleguarekin lotutako zeregin guztiak bete ahal izateko.
- Egindako distantzia: emakumeek distantzia txikiagoak egiten dituzte bidaia bakoitzean, eta kilometro gutxiago egunean zehar; izan ere, emakumeek egiten dituzten desplazamendu gehienak auzoaren barruan edo inguruko auzoen artean egiten dituzte.
- Garraiobidea: oinez eta garraio publikoan egiten diren joan-etorrien erabilera-tasa handiagoa da emakumeen artean gizonezkoen artean baino.
- Denbora- eta ordutegi-murrizketak: emakumeak gehiago daude garraioaren funtzionamendu-ordutegien eta zerbitzu publikoen irekiera-ordutegien mende.
- Segurtasuna: emakumeek beren mugimenduak mugatzen dituzte segurtasun eza sentitzen dutelako.
- Erosotasuna, ergonomia eta irisgarritasuna: emakumeek ez dituzte ibilgailuak eta geltokiak diseinatzeko erabiltzen diren gorputz-dimentsioak (garaiera ertaineko gizona, mendeko bidelagunik eta desgaitasunik ez duena, erosketa-poltsak ez daramatzana).
- Prezioa: Garraioaren kostua oso garestia izan daiteke maiz erabiltzen duten emakumeentzat eta errenta-maila txikia dutenentzat (Sánchez de Madariaga, 2009).

Automobila garraiobide nagusia bihurtu da, baina jakina da mundu guztiak ez duela hura eskuratzeko gaitasun bera. Gero eta handiagoa den automobilarekiko mendekotasunak bereziki emakumeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta eroste-ahalmen txikia dutenak kaltetzen ditu. Kalkuluen arabera, garraiobide hori erabiltzen ez duten pertsonen kopurua, herrialdeen arteko aldatetekin, biztanleriaren % 40tik % 50era bitartekoa da. Kopuru horretan sartzen dira adinekoen % 60 baino gehiago eta emakumeen erdia baino gehiago. Automobila eskuratu ezin duten pertsonak gero eta mugatuagoa dute beren mugikortasuna, garraio publikoa ez delako existitzen, edo segurua ez delako, edo deserosoa delako, edo denbora gehiegi eskatzen duelako, edo distantziak handiegiak direlako (Sánchez de Madariaga, 2004).

Bestalde, hirietan emakumeen segurtasuna bermatzea azpiegiturarekin eta garraio publikoarekin lotutako neurria da; izan ere, indarkeria-arriskua handitu egiten da gauez, kaleek eta parkeek argiztapen desegokia dutenean eta garraibideak erabilgarritasun eta maiztasun txikiagokoak direnean. Emakumeek hiri seguru baterako eskubidea izan dezaten, ezinbestekoa da garraibideak seguruak, eskuragarriak eta hedatuen izatea. (Buckingham, 2011). Horrez gain, jendeari begira lan egiten duten langileen tratuak, ez du bidaiarien segurtasun-sentsazioan bakarrik eragiten, haratago doa. Haien adetasunak eta bidaiariei eman diezaieketen laguntzak bidaiaren esperientzia atsegina izaten laguntzen dute (Ilárraz, 2006).

Genero ikuspegitik egindako garraioaren analisisa hau izanik, hainbat autorek proposamen ezberdinak plazaratu dituzte mahai gainean jarritako arazoei irtenbidea aurkitzeko asmoz.

Autore askok *15 minutuen hiri*-rengatik egiten dute apustu, beste batzuk *45 minutuen hiri*-ren ideia ere babesten duten bitartean. Lehenak, lau printzipio ditu oinarri gisa: hurbiltasuna, aniztasuna, dentsitatea eta nonahikotasuna. Proposamen honek jendea hiriaren erdigunean bizitzea du oinarri, hau da, behar duen guztitik 15 minutura bizi dela; honek, besteak beste, hiri osoan zehar zerbitzuak eskaintzea, merkataritza-ehuna berreskuratzea eta garraioa murriztea eskatzen du. Bigarrenak, elkarrekin konektatuta dauden hirien sareak sortzea du helburu, lurralde produktibo bat sortu eta elkarlan eta konpentsazio sistema sinbiotiko autoefizientean funtzionalitateak banatzen dituztelarik (Baldellou, 2020).

Proposamen hauez gain, garraio publikoa seguruagoa bilakatu nahian, hainbat udalek garraibideen politikak aldatzea erabaki dute. Gero eta ohikoagoa da, adibidez, autobusak norbere etxe parean uzteko aukera ematea (Donostiako Udala) edota garraibide segregatuak, emakumeentzako bakarrik diren bagoi bereziekin, kasu guztietan emakumeak genero-indarkeriatik babestea bilatuz (De Simone, 2020).

Argi izan behar dugu, ordea, neurri hauek koiunturalak bakarrik izan behar direla, ez baitiote oinarrian dauden genero-indarkeriaren arazoiei heltzen.

4.1.2. Espazio publikoa eta segurtasuna

Segurtasuna bizi-kalitate onaren oinarritzko baldintza bat da, gorputzaren oinarritzko premia bat delako. Segurtasunak eraso fisikoaren aurkako babesa, pribatutasuna mantentzea eta beste pertsona batzuen mehatxu psikikoak murrizteko aukera dakar.

Espazio publikoaren kalitatea eta segurtasuna funtsezkoak dira bai emakumeentzat eta baita adin handieneko biztanleentzat eta haurrentzat ere. Hiru talde horiek desplazamendu ugari egiten dituzte oinez, eta espazio publikoa, mugitzeko erabiltzeaz gain, aisialdirako eta ariketa fisikoa praktikatzeko leku gisa ere erabiltzen dute. Pertsona talde hauentzat kaleak mugitzeko baino zerbait gehiagorako

balio du, adibidez, aire zabaleko jolaserako edo plazan hitz egiteko. Aipatu bezala, talde horiek bereziki ahulak dira irisgarritasun eta segurtasun ezaren baldintzen aurrean.

Erasotua izateko beldurraren pertzepzioa erasotzaile izateko benetako aukera estatistikoa bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da; izan ere, beldurra da emakumeei etxetik irtetea eta hiri-espazioan mugitzea eragozten diena, eta, horrela, haien askatasuna eta garapen pertsonalerako, enplegurako eta zerbitzuetarako aukerak mugatzen ditu (Sánchez de Madariaga, 2004).

Genero-ikuspegitik begiratuta, hiriko alderdi garrantzitsu bat espazio publikoan eta garraioan pertsonen segurtasunarekin eta segurtasun-pertzepzioarekin lotuta dago. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak egindako segurtasun-pertzepzioari buruzko inkesten emaitzek (1.taula) erakusten dute segurtasun ezaren sentimendua handiagoa dela emakumeen artean (% 19,7) gizonen artean baino (% 3,8). Bilbo Metropolitarrako LPParen genero-ikuspegia txertatzeko azterlanetik ateratako ondorioetako bat da emakumeen % 42k ibilbideak aldatu dituela segurtasun-arrazoiengatik. Autolimitazio horiek emakumeei zerbitzu eta espazio publikoak erabiltzeko eta hiriaz gozatzeko eskubidea izatea eragozten diete, eta horrek haien garapena mugatzen du (Leturiondo-Aranzamendi, 2020).

Taula 1: Segurtasun-pertzepzioa generoka (2008), ehunekotan

Bizi den lekuan gabez bakarrik ibiltzean izandako segurtasun-sentimendua	%	
	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Oso seguru	23,6	47,9
Nahiko seguru	34,5	34,4
Segurtasun apurra	20,8	13
Segurtasunik ez	19,7	3,8
Ed/Ee	1,4	0,9
Guztira	100	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Departamentua

Hala ere, kontuan izan behar dugu emakumeentzako eta neskentzako hiriak "beldurraren ikuspegitik" diseinatzen ditugunean, kaleen arriskua diseinu-faktore bakar gisa jartzen dugunean, emakumeen eta nesken bizitza hobetzeko aukerarik garrantzitsuena galtzen dugula. Eztabaidak sarbide-berdintasunerantz aurrera egin beharko luke, eta ez soilik espazio publikoan emakumeen gorputzaren segurtasunerantz eta behaketarantz. Jakina, lehenik eta behin segurtasuna eta babesa jorratu behar dira, baina hiriek emakumeentzat eta neskentzat dakartzaten gainerako gabezia guztiak ere nabarmendu behar dira. Ikuspuntu etiko eta politiko batetik, bortxatua edo eraila ez izatea ezin da diseinu inklusiboaren helburu bakarra izan (De Simone, 2020).

Aipatutako segurtasun pertzepzioaren beherakada guztiz lotuta dago auzo-harremanak eraldatu izanarekin: jarduerak lurraldean zehar sakabanatuta daude, erabilerak gero eta gehiago bereizten dira eta pertsonak urrutiko leku horietara joateko gero eta behar gehiago dute (Sánchez de Madariaga, 2004).

Adibide konkretuak erantsi nahian, hauek izan daitezke segurtasun sentipena sortzen duten ezaugarrietako batzuk: ingurua erraz ezagutzea, guk ondo ikustea eta gu ikusiak izatea, guk ondo entzutea eta gu entzunak izatea, sarrera ikustea edo laguntza eskatzeko leku bat eskura izatea, ingurua garbi eta zaindua egotea edota espazioan ekintza kolektiboak aurrera eramatea (Hiria Kolektiboa, 2010).

Ikuspegi berriek hiri-formen eta segurtasunaren arteko harremanak aztertzen dituzte. Hauek, espazio publikoaren formak pertsonen aurkako erasoak eragin ditzakela edo, aitzitik, horiek saihesten lagun dezakela defendatzen dute. Krimena hiri-antolamenduaren bidez prebenitzeko ikuspegia eta emakumeek, segurtasunaren aditu gisa, segurtasunaren arloan duten esperientzia uztartzen dituzte; Torontokoa eta Quebecekoa dira arlo horretan mundu mailan garatutako esperientzia praktikoko garrantzitsuenak.

4.1.3. Etxebizitza

Emakume guztientzat garrantzi handia du etxebizitzak, denbora asko ematen dutelako bertan (gizonek baino askoz gehiago), eta denbora horren zati handi bat, gainera, lanerako denbora da. Hau da, emakumeentzat, ordaindutako enplegua izan edo ez, etxebizitza lantokia da. Etxeko indarkeria jasaten dutenentzat, gainera, indarkeria-leku bat da, eta ez kanpoko munduaren aurreko babesleku bat. Adineko pertsonak (gehienak emakumeak dira) eta mendeko pertsonak zaintzen dituztenak (gehienak emakumeak) dira etxe barruan denbora gehien igarotzen duten taldeak. Izan ere, mendeko pertsonak dituzten eta ordaindutako enplegurik ez duten emakumeak dira depresio-indize handienak dituzten gizarte-taldeak (Sánchez de Madariaga, 2004).

Eraikitzen diren etxebizitza gehienak seme-alabak dituzten bikote-familia konbentzionaletarako pentsatuta daude, baina Espainiako egungo etxeen erdiak baino ez dira eredu horri dagozkionak, eta are gehiago murrizteko joera dago. Ez dago eskaintza egokirik bakarrik bizi diren pertsonentzat (gehienak emakumeak), azkar hazten den familia-taldea izanik, bai behetik (20 eta 30 urte bitarteko pertsonak), bai goitik (adineko pertsonak). Bi taldeek premia espezifikokoak eta bereizgarriak dituzte, eta eremu handia planteatzen dute etxebizitzaren arloan esperimentatzeko eta berritzeko (Sánchez de Madariaga, 2004).

Etxebizitza duin eta egoki baten gozamina bermatzeaz hitz egiten dugunean, ezin dugu ahaztu biztanleria hori, esan bezala, zahartutako pertsonak osatzen dutena ehuneko handi batean. Ask,

degradatutako auzoetan bizi dira eta egoera-zaugarrian daude, eta horrek ezinbestean eskatzen du hiria berroneratzeko eragiketak egitea. (Leturiondo-Aranzamendi, 2020).

Adineko pertsonentzat (gehienak emakumeak) eraikitzen diren etxebizitzek normalean ez dituzte behar diren irisgarritasun- eta ergonomia-baldintzak gaitasun fisiko murriztuak dituzten pertsonentzat. Era berean, ez dago etxeko laguntzako eta zaintzako zerbitzu nahikorik. Pertsona horien premiak ase egin beharko lirateke, *lekuan bertan zahartzeko* ideian oinarritutako politika baten bidez, bizitza osoan etxebizitzan egotea erraztuko duena (Sánchez de Madariaga, 2004).

Bestalde, bai familiako buru diren emakumeentzat, bai tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat, etxebizitza kooperatiboko irtenbideak esperimentatu ahal izango lirateke, non eguneroko bizitzari lotutako lan batzuk elkarrekin egingo liratekeen. Era honetan, enplegua eta seme-alaben zaintza bateragarri egitea errazagoa izango litzateke. Eredu honen abantaila nagusia, kostu-gehikuntzarik gabe, kooperatiba-errealizazioari esker etxeko lanetan emandako denbora murriztea da. Lana partekatua denez, ez zaie hirugarren pertsoneri prezio baten truke enkargatzen, eta gainera, elkarlanak eskala ekonomiak baimentzen ditu, adibidez, produktuak edota etxetresna elektrikoak erosterakoan (Sánchez de Madariaga, 2004).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea funtsezko arau-erreferentea da Euskadin beren politikak eta programak diseinatu behar dituzten erakunde guztientzat. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak sexuaren araberako diskriminazioa saihesteko arauak betetzen direla bermatzen du Etxebideren (Etxebizitzaren euskal zerbitzua) bitartez.

Etxebiden izena emateko eta etxebizitzak esleitzeko ereduak diskriminazio sexista oro saihesten du, indarrean dagoen Etxebizitza Gida Planak (2021-2023) jasotzen duen moduan. Azken urteotan aurrerapen berriak egin dira Etxebizitza Sailburuordetzak sustatuta, arlo horretan alderdi berriak sartzeari dagokionez. Azken urteetan egoera hobetu bada ere, Euskadiko emakumeen egoera sozioekonomikoa ez da ona, eta oraindik ere gizonek baino zailtasun handiagoak dituzte lan-merkatura kalitatezko enplegu batekin sartzeko. Egoera horrek zaildu egiten du haien independentzia ekonomikoa, etxebizitza libre bat eskuratzeko eta/edo alokairuko edo erositako etxebizitza baten ordainketari haien baliabide propioekin aurre egiteko (Etxebide, 2020).

2021eko txostenaren emaitzek berriro ere baieztatu dute egoera hori. Lan egiteko adinean dauden emakumeen jarduera-tasa gizonena baino ehuneko 8 zortzi puntu beherago dago. Langabezia-tasa murriztu egin da eta gizonen langabezia-tasara hurbildu da, baina soldatapeko emakumeen soldata gizonena baino 6.000 euro baxuagoa da. Alde hori 1.000 euro baino ez da murriztu azken hamar urteetan (Etxebide, 2020).

4.1.4. Jarduera ekonomikoa

Enpleguaren gaia funtsezkoa da, hain zuzen ere, enplegua eta familia bateragarri egiteko beharra dagoelako. Orain arte emakumeen gain zegoen etxeko lanen erantzukizun ia eskusiboa, eta hori da, hain zuzen ere, generoaren araberako lan-banaketaren ezaugarri nagusia (Sánchez de Madariaga, 2004).

Gaur egun, Euskadin, emakumeen jarduera-tasa % 51,7koa da, hau da, gizonezkoen tasa baino ehuneko 9,1 puntu beherago.

Taula 2: Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
2017	61,4	52,1	56,6
2018	61,8	52,1	56,7
2019	61,7	52,4	56,9
2020	60,5	51,3	55,8
2021	60,8	51,7	56,1

Iturria: Eustat

Gainera, Lana eta Gizarte Segurantzaren datuen arabera, Euskadin emakumeek gizonezkoek baino % 24 gutxiago kobratzen dute, urteko batz besteko irabaziari erreparatuta.

Faktore hauek argi uzten dute pobrezia feminizazio bat existitzen dela eta, horrenbestez, honekin bukatzeko esku-hartze publikoa ezinbestekoa dela.

4.1.5. Ekipamenduak, merkataritza eta aisia

Egunero hiria erabiltzeko behar dituzten zerbitzuak – Etxea, lantokiak eta merkataritza-guneak – Sakabanatuta daude guztiak, eta horrek zaildu egiten du emakumeek zerbitzu horiek guztiak eskuratzeko duten mugikortasuna. Hiriaren eguneroko erabilerekiko hurbiltasuna oso garrantzitsua da emakumeentzat, kontuan hartzen bada hiriaren barruan dituzten premien eta rolen aniztasun handiena (Buckingham, 2011).

Hau argi izanda, generoaren ikuspegitik, bi bereizketa egitea komeni da. Lehenengoa, ekipamendu motaren arabera. Bigarrena, ekipamendu horien erabileraren arabera, norberaren erabilera eta hiri-espazioan bakarrik mugitzeko autonomia pertsonalik ez duten beste pertsona batzuen laguntzaile-erabilera bereiziz. Horrela, honako hauek bereizi beharko genituzke:

1. Ekipamendu tradizionalak, aitortutako eskubide edo premiei erantzuten dietenak: Hezkuntza, osasuna, kultura, aisia, kirola...

2. Lan-bizitza eta familia-bizitza (mendekotasuna duten pertsonak zaintzea, batez ere) bateragarri egiteko beharrezkoak diren ekipamendu berriak: oraindik erantzukizun sozialetzat hartu ez diren premiak betetzen dituztenak.

Lehen taldeko ekipamentuari dagokienez, oro har, emakumeek ezin dituzte aisialdiko, kulturako eta kiroleko ekipamenduak gizonen modu berean aprobetxatu. Emakume askok ez dute ez denborarik ez dirurik etxetik gertu ez dauden ekipamenduak eskuratzeko. Baliabide eta familia-karga gutxi izateagatik mugatutako mugikortasuna duten emakumeek tokiko ekipamenduak behar dituzte (Sánchez de Madariaga, 2004).

Bigarren multzoko ekipamenduei dagokienez, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko ekipamendu- eta zerbitzu-premia berriek irtenbide askotarikoak, malguak eta kalitatezkoak eskatzen dituzte. Mendeko pertsonen zaintza ezin da irtenbide homogeneo eta estandarizatuekin konpondu, pertsonen artean askotariko premiak eta lehentasunak daudelako (Sánchez de Madariaga, 2004).

Eremu honetan konponbide guztiek ez dute espazio fisiko berri bereizi bat eskatzen. Adibidez, adineko pertsonen zaintzak hainbat motatako egitura fisikoak eskatzen dituzten soluzio ugari ditu. Adinekoek nahiago dute beren etxeetan ahalik eta denbora gehien bizitzen jarraitu. Horretarako, etxez etxeko laguntzak (zainketak, otordu-zerbitzuak edo etxeko garbitegia) eta etxebizitzako espazioaren egokitzapen ergonomikoak behar dira. Irtenbide horrek ez du berariazko eraikuntzarik eskatzen, lehendik dagoenaren aldaketak baino ez ditu eskatzen, adibidez, etxebizitzaren eraikuntzan diseinu unibertsalari buruzko aurreikuspen handiagoa egotea. Eguneko zentroek ere etxean egoten laguntzen dute, bizitza soziala, arreta medikoa eta zenbait zerbitzu emanez, hala nola janaria. Autonomia fisikoa edo mentala galdu eta eguneko 24 orduetan arreta behar duten pertsonentzako azken irtenbidea da egoitza (Sánchez de Madariaga, 2004).

4.2. Plangintza prozesua

Plangintza-estrategiek gatazkari aurre egin behar diote, saihestu beharrean; eta negoziazioan inplikaturako gizarte-eragileen interesak entzuteko espazioak sortu behar dituzte.

Gatazka horiek hiri-plangintzaren prozesu nagusi gisa txertatzean, proiektuak, negoziazioaren eta konponbideen bidez kudeatu behar dira, horren nagusi diren ikusezintasuna, zabarkeria eta indarkeria alde batera utzita (De Simone, 2020).

Genero-kontzientzia duen plangintza-estrategiaren helburua hau izanik, ikuspegi honek komunitateak eraldatzeko prozesuak dakartzala ikus daiteke, aplikatzen bada. Plangintzaren helburuak aldaketak eskatzen ditu pertsonen eguneroko jarreretan, aurreiritzietan, usteetan eta jokabideetan; eta prozesu hori egiturazko eraldaketen eta komunitateko ikuspegi intersektionalen bidez baino ez da gauzatzen. Eztabaidak eta negoziazioak sustatzeak ikusgarritasuna, gardentasuna eta enpatia ematen die

lankidetzaren prozesuei, eta horietako asko ezkutuan eta gutxietsita daude hiri-plangintzaren ikuspegi "tradizionalean" (De Simone, 2020).

Plangintza prozesu orok kontuan izan behar du jatorri eta egoera ezberdinetako jendea elkarlanean aritzea ezinbestekoa dela. Desberdintasun handiak dauden herrialdeetan, behartsuek edota erdi mailako klaseak eta aberatsek beraien seme-alabak eskola ezberdinetara eramaten dituzte, auzo ezberdinetan ibiltzen dira, parke ezberdinetan jolasten dute, kirol ezberdinak egiten dituzte edota azpiegitura ezberdinak erabiltzen dituzte. Guzti honek, klaseen arteko ezberdintasuna sortzen du, klaseak beraien artean ez baitira harremantzen eta honek batetik besteari gutxietsia dakar. Michael Sandel-ek dioen moduan, garrantzitsua da jatorri sozial ezberdinetako pertsonen elkar topatzea, elkarrekin talka egitea bizitzaren ibilbide arruntean; izan ere, horrek irakasten digu negoziatzen eta gure arteko ezberdintasunak errespetatzen. Era honetan bakarrik iritsiko gara guztion ongizateaz arduratzera.

4.2.1. Datu estatistikoak eta ikasketa kualitatiboak

Errealitatea ahalik eta hobeto islatzen duten datu estatistikoetan oinarritu behar da planteamendua, eta horretarako datuak sexuaren arabera bereizita jaso behar dira, eta baita datuak biltzeko irizpide berriak sartu ere. Informazio hori izatea ezinbesteko abiapuntua da gaur egungo ezberdintasunen hedapena ezagutzeko, bai generoari, bai etniari erlijioari, adinari eta abarri dagokienez.

Baina datu estatistikoak ez dira nahikoa. Azterlan kualitatiboak ere beharrezkoak dira, estatistikek islatzen ez dituzten alderdiak hobeto ezagutzeko, bereziki nahiei, asmoei eta lehentasunei dagokienez (Sánchez de Madariaga, 2004).

Premiazkoa da positibismoa eta logika kuantifikatzaile tradizionaletik urrunduko den eztabaida-maila bat lortzea, baliozkoak diren baina normalean debalututa dauden beste neurketa-modu batzuk balioesteko. Beste neurketa-modu batzuen balorizazioari buruzko eztabaida honetan, garrantzia hartzen dute pertzepzioek, sentimenduek eta emozioek; hauen baliozkotasuna mundu modernoan gutxietsi egin da, zenbakiekin, datekin eta gorabeherekin neurtzeko zailtasunagatik. Hala ere, eguneroko bizitzan, emozioak gertaerak bezain erabakigarriak dira. Adibidez, hiriko segurtasun-pertzepzioek geografia konplexuak eraikitzen dituzte, irisgarritasun-mapa mentaletan islatzen direnak, eta datuak deskriba dezaketena bezain benetakoak edo errealistagoak dira. Leku bat emakumeentzat arriskutsua dela sentitzea, sektore horretan beren aurkako delituen benetako intzidentziarik ez dagoenean ere, are garrantzitsuagoa izan daiteke hirirako sarbidea eta eskubidea eztabaidatzen direnean (De Simone, 2020).

4.2.2. Parte-hartzea

Hirirako eskubideez hitz egitean kontuan izan behar dugu behar-beharrezkoa dela emakumeek hiri-plangintzan, tokiko gobernantzan eta hiri-inguruneetarako erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea. Horren barruan sartzen da emakumeek gobernu maila guztietan berdintasunez parte hartzea, arkitekto edo hirigile gisa, eta feministen eta emakumeen erakundeen eta tokiko gobernuen arteko lan-harreman formalak sortzea. Kontu handia izan behar hirirako eskubidea jende guztiarentzat izan behar dela aldarrikatzean; ezinezkoa izateaz gain, kontuan hartu behar da “guztien” ideia horrek ez duela hiriko aniztasuna barne hartzen, eta eskubide horrek lortu nahi duenerako kaltegarria ere badela. Gizonen giza eskubide partikularrak asetzeak emakumeen giza eskubide partikularrak urratzea eragin dezake. Hirirako eskubidearen aldeko borroka sustatzeak, genero-desberdintasunak kontuan hartu gabe, emakumeek hirirako duten eskubidea urratzea ekar dezake (Buckingham, 2011).

Kontsulta-prozesuak beharrezkoak dira erabakiak hartzeko prozesuetan ordezkariak txikiagoa duten gizarte-taldeen ahotsa emateko; izan ere, erabakiak hartzen diren botere-esparruetara iristeko gaitasun urria dutelako, erraz bazter daitezke talde horien beharrak. Prozesu horiek aukera ematen dute biztanleria anitza identifikatzeko, eta bereziki diseinatuta egon behar dute talde hauek beharrezkoak diren beharrak jasotzeko, horiek baitute ordezkariak txikiagoa prozesuetan, haiek baitute botere gutxi. Bestela, partaidetza-prozesuek beste ondorio bat izan dezakete: interes-talde boteretsuei tresna bat gehiago ematea, denbora gehiago, baliabide ekonomiko gehiago eta ezagutza tekniko gehiago baitituzte prozesu horiek erabiltzeko eta beren mesedetan manipulatzeko (Sánchez de Madariaga, 2004).

Behar bezala diseinatutako kontsulta-prozesu batek kuantifikatzeko zaila edo ezinezkoa den informazioa azal dezake, inkestek islatzen ez dutena. Ordura arte egiturazko izaeragatik inkontzienteak ziren arazoak edo beharrak ikusteko moduak argitara atera ditzake (Sánchez de Madariaga, 2004).

4.2.3. Erabakiak hartzeko modua irudikatzea

Hirigintzarekin lotutako lanbideetan emakumeen parte-hartzea nahiko mugatua da. Sektore publikoaren barruan, beste eremu batzuetan baino presentzia txikiagoa du, bai termino kuantitatiboetan edo emakumeen kopuru absolutuan, bai termino kualitatiboetan edo emakumeen presentzia erabakitzeko gaitasuna duten posizioetan. Sektore pribatuan, bai enpresa handietan, bai lanbide liberean, presentzia hori ere txikiagoa da (Sánchez de Madariaga, 2004).

Erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen presentzia garrantzitsutzat jotzen da, baina ez nahikotzat, plangintza-prozesuetan emakumeen premiak gehiago kontuan har daitezkeen sustatzeko. Alde batetik, akulturazioaren arazoa dago: emakume profesionalak ez dira nahitaz gehiago jabetzen emakume gehienek beharrez, beren lankide gizonetakoak baino (Sánchez de Madariaga, 2004).

Administrazio publikoek funtzionarioak eta, bereziki, zuzendaritzako langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko egindako ahaleginak erakunde profesionalek eta unibertsitateak egindako ekintzen bidez osatu behar dira. Lanbidean emakumeen kopurua nabarmen handitzeak, bereziki bertikala bada eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurriekin batera gertatzen bada, genero-arazoak agendan gehiago sartzen lagunduko du, guztizko kopuruarekin genero-dimentsioa praktika profesionalean txertatzeko gai direnen kopurua ere handituko baita (Sánchez de Madariaga, 2004).

4.2.4. Gastu publikoa eta inbertsioa

Ekipamendu, zerbitzu eta etxebizitzetako gastu publikoaren maila eta gastu publiko mota horri Estatuaren beste gastu batzuen aldean ematen zaion pisu erlatiboa funtsezko bi alderdi dira, eta ondorio bereizgarriak dituzte gizonen eta emakumeen artean. Emakumeak, zaintzaile eta gizarte-ugalketaren arduradun gisa, eta gaitasun ekonomiko txikiagoaren ondorioz, gizonak baino askoz gehiago daude zerbitzu eta ekipamendu publikoen mende. Horregatik, inbertsio-lehentasunak eta gastu publikoaren maila funtsezkoak dira haientzat (Sánchez de Madariaga, 2004).

Emakumeak neurritz kanpo kaltetzen dira hirigintzako gastu publikoari dagokionez, lehentasuna ematen zaionean errepideetan inbertitzeari garraio publikoan inbertitzeari baino; lehentasuna ematen zaionean hiri baten lehiakortasun internazionala babesteko azpiegitura handietan inbertitzeari, gizarte-ekipamenduetan inbertitzeari baino, mendeko pertsonak zaintzera bideratutakoak barne; lehentasuna ematen zaionean kirol- edo aisialdi-instalazio handietan inbertitzeari, auzo-ekipamendu txikien aurretik. Oro har, handiari eta ikusgarriari ematen zaionean lehentasuna txikiari eta oinarrizkoari baino (Sánchez de Madariaga, 2004).

5. Deba eta Itziar herrien hirigintza analisiak

Deba, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko udalerri bat da, Debarrena eskualdeko handiena, lurraldez, 51,54 km²-rekin. Itsasertzean dago, eta izena Deba ibaitik dator, bertan itsasoratzen baita. Lan honetan udalerriko lau herriguneetatik bi aztertuko dira, Deba eta Itziar.

Irudia 2: Debako herrigunea



Iturria: Lurdata

Irudia 3: Itziarko herrigunea



Iturria: Lurdata

Deba eta Itziar herri zantzaileak izateko bidean, aipatutako eduki sustantiboaren barnean ikusitako bi gai aztertuko ditugu: mugikortasuna, espazio publikoa eta segurtasuna. Horrez gain, herriguneetako ikur-bidezko irudikapenean ere jarriko dugu fokoa.

Azterketa hau aurrera ateratzeko, datu estatistikoak eta ikasketa kualitatiboak egiteaz gain, parte-hartze prozesu bat jarri dugu martxan, eta horretarako Col-lectiu Punt 6 erakundearen *Mujeres trabajando: Guía de reconocimiento urbano con perspectiva de género* gida erabili da. Lan hau eskala txikian egin da, eta beraz, gida ditugun baliabideetara moldatu da. Gainera, 2009an Murgibidek Deban egin zuen hirigintza analisia ere hartu da eredu gisa. Bestalde, egindako analisia aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da Zarauzko Projekta Urbes-eko Patxi Galarragak eskainitako denbora. Arkitektura Estudioan egiten duten lana eta hirigintzari eta parte-hartzeari buruz duten ikuspuntua partekatu izanak, zeharo eragin du lan honetan.

5.1. Helburuak

Deba eta Itziar herrien hirigintza analisia egitearen helburu nagusia aipatutako teoria hobeto ulertzea da, eredu praktikoen bitartez azaldutako kontzeptuak argiago izatea. Askotan, abstraktuak edota arrotzak egiten zaizkigun kontuak garbiago ikusten ditugu gure eguneroko espazioetara gerturaz baditugu, eta beste batzuetan, ordea, guri ez dagozkigun kontuetaz ari zaizkigula uste dugu. Hori da hain zuzen analisi hauen helburua, Deba eta Itziar herrietarako Zaintza Ekosistemen inguruan hausnartzen jartzea, hirigintza guztioi zuzenki eragiten digun zerbait dela ikustea, eta herriguneei Mapa Moreak egiteko herritarren jakituriaz baliatzea.

Guzti hau egiteko, aurretik aipatutako teoriaraino oinarrituko gara, Deba eta Itziar herrietarako datu estatistikoez baliatuko gara eta, herritarrekin batera, parte-hartze prozesu bat jarriko dugu martxan.

5.2. Aplikatu dugun teoria

Mugimendu feministak argi dauka Zaintza bizitzak sostengatzeko elementu nagusia dela eta, horretarako, politika publikoen erdigunean etengabe egon behar duen gaia izan behar du. Pertsona orok dituen zaintza beharrak asetu izateko eta zaindua izateko eskubideak, eta administrazio publikoak horren bermatzaile izan behar du. Bestelako sistema publikoek —hezkuntzak edo ogasunak esaterako— duten aintzatespena eduki behar luke zaintzak ere.

Zaintza sistema publiko bat osatzea irtenbide bat izan daiteke, eta Zaintza lanak errekonozitzea, komunitate zaindagarriak sustatzea eta zaindagarri bizi baldintza duinak ziurtatzea izan beharke lirateke besteak beste Zaintza sistema publikoak bete beharreko helburuak.

Zaintza Ekosistema eredu hori garatzeko eskala egokiena udalerrria da. Izan ere, hor dugu gaitasuna, zaintzak duen konplexutasuna eta aniztasuna identifikatu eta lantzeko. Bestalde, espazioaren gaiari erreparatu gero, bizitza komunitarioa sendotzeko espazioak eskaintzen dituzten hiri, auzo eta herriak behar ditugu, publiko-pribatu dikotomiarekin hautsi, komunitatea sendotu eta zaintzaren auziari era kolektiboan erantzutea erraztuko digutenak. Gaurko hiri ereduak ez daude lan erreproduktiboak eta Zaintza lanak aurrera eramateko diseinatuak; lan produktiboaren perspektibatik diseinatu daude. Hortaz, balio horietan eraikitako hirietan nekez eman ahalko zaio erantzuna era errazean zaintzaren krisiari. Zaintzaren krisiari ekiteko, ezinbestekoa da, beraz, Zaintza erdigunean jartzea eta hirigintza arloan espazioak eta hiriak begirada horrekin diseinatzea (Hiritik at, 2021).

5.2.1. Aurrekariak: beste leku batzuetako esperientziak

Hirigintzako proiektu ezberdin asko burutu dira Euskal Herrian genero perspektiba lantzen dutenak; horien artean hiru dira azpimarragarriak: Bilboko auzo garaietako plan berezia, Hiri debekatuaren

mapak (Getxon, Hernanin, Tolosan eta Abadiñon) eta San Frantzisko auzoko Mariaren bihotza plaza urbanizatzeko proiektua.

Hernanin ere jorratu zuten hirigintza feminista 2009. urtean eta bi fase nagusitan banatu zuten lana; lehen fasean prozesu parte hartzaile zabal eta dinamikoa egin zen hirigintza eta generoa lan ardatz izanda. Bigarren zatian berriz informazio horren lanketa, udaletxeko teknikari eta politikoekin eztabaida eta adostasuna bilatu eta guzti horren emaitza izan zen mapa argitaratu zen. Mapa bera etxez-etxe banatu zen eta parte hartzaileei aurkezpen zuzena egin zitzaion. Horretaz gain, jendaurreko aurkezpen zabalak egin ziren, besteak beste, irratian eta prentsa idatzian (Mendizabal, 2008).

Azkenik, ikuspuntu bera jorrantzen duen Projecta Urbes Arkitektura estudioan hainbat proiektutan egin dute lan; Soralezeko, Azkoitiko, Abanto Zierbenako, Orkoingo, Ondarroako, Bermeoko eta Andoaingo Mapa Moreak egin dituzte, besteak beste.

5.2.2. Zer da Mapa Morea

Parte hartze kolektiboaren bitartez, emakumeen bizitzetan eragina duten hiriko ekipamenduaren, mugikortasunaren eta, bereziki, segurtasunaren azterketa proiektuak dira Mapa Moreak.

Emakumeak dira Zaintza lan gehienak egiten dituztenak eta herri barruan oinez eta garraio publikoan gehien ibiltzen direnak, eta ondorioz, beraiek dira herriko ekipamenduak gehien erabiltzen dituztenak. Bestalde, emakumeak dira kalean eraso gehien sufritzen dituztenak, eta horrexegatik, segurtasun gehien behar dutenak.

Eguneroko bizitzari erreferentziarik egin gabe sortzen diren hiriak segurtasunik gabekoa izateko arriskua dute; espazio publikoan pertsonak elkartzeko eta hiritargoaren arteko elkartasuna beren zutabe diren hiriek izango dira hiri seguruak.

Mapa honek, arriskua, deserosotasuna edota emakumeen egonkortasunari lotutako problematika anitzak eragin ditzaketen guneak identifikatzea du helburu. Honela, espazioak identifikatzeaz gain, hauen transformaziorako eta berdiseinurako proposamenak garatzeko bide bat ireki nahi dugu modu parte-hartzaile batean (Ortiz & Gutiérrez, 2015). Helburua emakumeek hiriarekiko duten ikuspegi eta iritzia hiri plangintzan txertatzea da, eta honela perspektiba eta begiradekin berriekin berau aberastea.

5.2.3. Barneratuko dugun edukia (eduki sustantiboa)

Hirigintzari buruz ari garenean, ikusi berri dugun bezala, elementu asko sartzen dira jokoan. Lan honetan, ordea, ezingo ditugu nahi beste gai barneratu; lau gai besterik ez ditugu aipatuko: segurtasuna eta autonomia falta, mugikortasun eta irisgarritasun falta, Zaintza espazioak eta emakumeen presentzia.

A. Segurtasun eta autonomia falta

Erasotua izateko beldurraren pertzepzioa erasotzaile izateko benetako aukera estatistikoa bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dela ulertuta, segurtasunari dagokionez, Murgibide berdintasun aholkularitzaren eta Getxoko hiri debekatuaren maparen arabera ondorengo ezaugarriak dira emakumeei segurtasun eza edota horren sentipena eragiten dietenak (Albeniz & Alonso, 2009):

- Ikus-eremu mugatua da
- Ikusiak ez izatea
- Entzunak ez izatea
- Leku bakartia egunez
- Leku bakartia gauez
- Gaueko argiztapen desegokia
- Inguruan zoko eta ezkutalekuak daude
- Urbanizazio gutxi, mantentze-lanak ez direlako nahikoak edo ikus-eremua eragozten duten landareak edo belarrak daudelako
- Ikus-eremuan irteera posible bat ez izatea.

B. Mugikortasun eta irisgarritasun falta

Aurrerago esan bezala, espazio publikoa, mugitzeko erabiltzeaz gain, aisialdirako eta ariketa fisikoa praktikatzeko leku gisa ere erabiltzen dute. Emakume zaintzaileak, haur eta nagusienekin batera, bereziki ahulak dira irisgarritasun ezaren aurrean.

Elkartzeko eta bizikidetzarako espazioak sortzea hirigintza feministaren helburu garrantzitsuenetako bat izanik, zaintzarako espazio partekatuak eta irisgarriak bermatu behar dira.

Irisgarritasuna oinarri gisa hartuta, *Murgibide* berdintasun aholkularitzaren arabera arazo hauek identifikatzea izango da gure helburua:

- Espaloiak estuak izatea
- Oinezkoen ibilbide jarraiturik ez egotea
- Espaloiak egoera txarrean daudela edo zorua ez dela egokia
- Diseinu desegokiko hiri-altzariak
- Txarto diseinatutako oinezkoen pasabideak (higatu gabeko espaloiak)
- Oinezkoen igarobiderik eza
- Gaizki aparkatutako ibilgailuek pasabidearen zabalera murriztea
- Desnibelak eta arriskuak egotea
- % 8tik gorako maldak
- Egokitu gabeko sarbideak

C. Zaintza espazioak

Zaintza eremu publikoan praktikatu ahal izateko, ezinbestekoak dira atseginak diren espazioak. Kontsumo ereditik kanpo, kalitatezko denbora pasatzeko guneak identifikatzea eta zaintzea ere bada proiektu honen helburua. Komunitatea garatzeko beharrezkoa baita elkartuko garen eta bizipenak elkarbanatzeko erabiliko ditugun eremuak.

D. Emakumeen presentzia

Espazio bat leku bihurtzen da gizatiartzen denean, eta horretarako egin behar den lehenengo gauza izena ematea da. Izena ematean lekuak onartzen dira, pertsonak herriaren historiari egindako ekarpenaren isla.

Emakumeen presentzia sinbolikoak, hirian, kaleen, plazan, parkeen eta eraikin adierazgarrien nomenklaturaren bidez, emakumeen ahalduntzea bultzatzen du, hala, espazio publikoan beren burua ezagutzeko erreferentziak aurkitzen dituztelako.

5.3. Herri mailan egindako proiektua pausoz pauso

Aurretik aipatu bezala, plangintza-estrategiek gatazkari aurre egin behar diote, saihestu beharrean; eta negoziazioan inplikaturako gizarte-eragileen interesak entzuteko espazioak sortu behar dituzte. Hau bermatzeko, lehen pausoa emakumea subjektu bezala planteatzea da. Herria gehien transitatzen duten pertsonak emakumeak izan arren, hirigintzari dagozkion erabaki espazioak guztiz maskulinoak dira.

Genero ikuspuntua ardatz gisa, Deba eta Itziarko herriguneeen hirigintza analisiak egingo ditugu, herrian Zaintza Ekosistema indartsu bat sortzeko bidean.

5.3.1. Datu estatistikoak eta ikerketa kualitatiboak

Identitateen onarpena ezinbestekoa da politikan. Errealitateak onartu behar dira. Jendartea masa orokor bat bezala tratatzen badegu, beti utziko ditugu kanpoan egoera zaurgarrian daudenak. Politika masarentzat egiten badugu, beti berdinentzat egiten dugu.

Arazoa non dagoen identifikatzeko beharrezkoa da desglosea ondo egitea. Adibidez, errentaren edo generoaren araberako bereizketa egitea. Datuetan arrakala bat existitzen den momentuan, arazoa konkretatu dezakegulako. Errenten arteko arrakala bat dugunean, klase problematika bat dugu aurrean. Baina ezin izango dugu problematika identifikatu datuak ondo behatzen ez ditugun bitartean. Gaira hurbilduz, genero arrakala bat dugun momentuan, genero poblematika bat daukagu, eta arazoa hortik enfokatu behar da nahi eta nahi ez, bestela ez dugu erremedio egokia aplikatuko.

Taula 3: Debako >=16 urteko biztanleriaren langabezi tasa, 2020

	Langabezi tasa
Guztira	6,8
Gizonak	5,6
Emakumeak	8,3
Genero arrakala	2,7

Iturria: Eustat

Taula 4: Debako batez besteko pertsona-errenta (eurotan) sexuaren arabera, 2019

	Errenta osoa (€)
Guztira	23.350
Gizonak	29.039
Emakumeak	17.775
Genero arrakala	11.264

Iturria: Eustat

Bi taula hauetan herrian ematen diren bi genero arrakala esanguratsu jaso dira. Langabeziari dagokionez, emakumeen langabezia tasa 2,7 puntu handiagoa da gizonezkoenarekin alderatuz. Bestetik, Debako emakumeek, batez beste, gizonezkoek baino 11.264 euro gutxiago irabazten dituzte urtean.

Datu hauez baliatuz, esan genezake, Deban, aipatutako bi eremuetan genero arrakala existitzen dela, eta beraz, langabeziari edo errenta mailari buruz hitz egiten dugunean, nahi eta nahi ez, fokoa emakumeengan jarri behar dugula.

5.3.2. Parte-hartzea

Auzotarrok ezagutzen dugu gehien gure hiria edo herria eta, beraz, gure parte-hartzea ezinbestekoa da edozein esku-hartze egiteko, han bizi garelako, bertan paseatu, erosi, jolastu, zaindu eta lan egiten dugulako.

Gainera, herritar gisa espazioen diseinuan parte hartzen dugunean, handitu egiten dira partaide izatearen sentimendua, jabetzearen zentzua eta baita bizi-kalitatea ere. Bestalde, prozesu horien bidez, gure inguruan bizi diren beste pertsona batzuk ezagutzea sustatzen da, eta, beraz, komunitatean hobeto bizitzen ikasten dugu.

Horregeatik, hirigintza genero ikuspuntutik lantzeko, ezinbestekoa da bertako emakumeen esperientzia ezagutzeari, beraien eguneroko bizitzako jakinduriaz baliatzeko.

Kontuan izan behar dugu, ordea, parte-hartze espazioak zabaltzean, zein gerturatu den eta zein ez. Prozesua demokratikoa izan arren, badakigu ohikoa dela egoera zaugarrian daudenak kanpoan geratzea eta beraz, hau presente izan behar dugu parte-hartze prozesuetatik ateratako erantzunak aztertzerako orduan.

Ikuspuntu honi jarraituz, udal teknikarien formazioaren garrantzia azpimarratzen da. Udaletxeetan ehundaka erabaki hartzen dira urtean zehar, eta teknikariak hautatuak izan ez diren arren, beraien esku izaten dira herri mailan hartzen diren erabaki garrantzitsu asko. Horregeatik, udal langileak generoaren inguruko formakuntza jaso behar dute. Eta ezin dira borondatezko ikastaroak izan, genero ikuspuntua transbertsala eta derrigorrezkoa izan behar baita.

Azterketa hau aurrera ateratzeko aipatutako bi ardatzak jarraitu dira. Batetik, udal teknikariek bildu nintzen, nire proiektuaren ideia garrantzitsuenak transmititzeko asmoz. Besteak beste, gai hauen inguruan aritu ginen: ikuspuntu feministaren zeharkakotasunaren ezinbestekotasunaz, eta hortaz, herritarrak masa homogeneo bat bezala tratatzearen arriskuaz eta esanahiaz; zaintzen izatera ikusezinez eta hori aldatzeko urgentziak; teknikariek hartzen dituzten erabakien transzendentziak; agenda politikoa jendearen eskaeren arabera izatearen gabeziak; eta parte-hartze prozesuaren nondik norakoez.

Bestetik, herritarrei hirigintza eta Zaintza Ekosistemen inguruko informazioa helarazi zitzaizkien; beraien iritzia jaso aurretik, beharrezkoa duten informazioa eskuragarri izan behar dute eta horretarako, *Berriketan* herri aldizkarian ondorengo testua argitaratu zen:

Irudia 4: Berriketan aldizkarian idatzitako testua, 2022ko ekaina

Zaintzen duen herria

Urteak daramatza Euskal Herriko mugimendu feministak zaintza-lanen errekonozimendua errebindikatzen. Zaintza-lanek ordaingabeak edo gaizki ordainduak eta lan-balditza miserable-dunak izaten jarraitzen duten bitartean, emakumeek jarraituko dute lan hori egiten, prekarizaziora kondenaturik.

“Zaintzak erdigunera” lelopean abiatu ditugu ehundaka manifestazio, mahai-inguru eta tailer azken urteotan. Erdigune politikora, batetik, hedabideen eztabaidetara eta gobernuen lehen-tasunetara. Eta erdigune fisikora, bes-

tetik, etxeko pribatutasunetik herriko kale eta plazetara.

Herri zaintzaileetan, espazioak malguak izan behar dira, pertsonen beharretara egokitzen direnak, eta ez pertsonak espazioaren baldintzetara. Herri zaintzaileetan, pertsonen segurtasuna hauteman behar dute, espazioak ondo seinaleztatuta eta argizatuta daudelako. Herri zaintzaileetan, ezin dira auzokoak kanporatu gehiegizko alokairu-kontratuengatik, espekulazio-agatik eta jabetza pribatua bakarrik zaintzen duten araudiengatik. Herri

zaintzaileetan, pertsonak askotarikoak gairela onartzen da, adin, jatorri, gaitasun, genero, erlijio ezberdinetakoak.

Deba eta Itziar herri zaintzaile bilakatzeko bidean, genero ikuspegitik hiri-diagnostikoa egiteko prozesu parte-hartzailea jarriko dugu abian datozen hilabeteetan, Dagigun ekimenaren baitan. Horregeatik, hemendik gutxira iragarriko ditugun ekintzetan parte hartzea animatzen zaituztet, guztion artean herri zaintzaileago bat eraiki dezagun.

Amaia Arotzena

Iturria: *Berriketan*, Debako herri aldizkaria - 274. alea

Horrelako testu bat formazio bezala gutxitxo dela kontziente izanik, parte hartze espazioa tailer formatuko izatea erabaki zen. Hau da, kontzeptuen inguruko azalpenak eta herritarren iritzien partekatzea uztartzen zituen espazioak izango ziren. Bi tailer ezberdin antolatu ziren, bata Deban eta bestea Itziarren. Herriko eragileei tailerrera gerturatzeko gonbita pertsonala egin zitzairen, herrian zehar kartelak itsatsi ziren, eta Udalaren komunikazio baliabideak erabili genituen konbokatoria ahalik eta zabalena izateko asmoz.

Irudia 5: Debako parte-hartze tailerreko kartela

Irudia 6: Itziarko parte-hartze tailerreko kartela



Iturria: Egite propioa

Iturria: Egite propioa

Tailerrek funtzionamendu dinamikoa izan zuten baina, hasteko, beharrezkoa zen parte-hartzaileak gaian barneratzea. Hasteko, nire Gradu Amaierako Lanaren aurkezpen labur bat egin nien, kontzeptu teorikoak azalduz eta beraien parte-hartzearen garrantzia transmitituz. Nire helburu nagusia bertaratutako guztiek gaiaren inguruko gutxieneko jakituria komun bat izatea zen, gerora, ikuspuntuak eta iritziak elkarbanatzeko ezinbestekoa baita.

Tailerraren zati dinamikoarekin hasteko, etorririko bakoitzari txartel batzuk banatu zitzaizkien. Batetik, beraien profila zehaztuko zuen txantilo bat, garrantzitsua baita gerora jasoko ditugun ikuspuntuak zeinengandik datozen jakitea; eta bestetik, jorratuko genuen gai bakoitzean oinarritutako txantilo bana. Jorratuko genituen kontzeptuak eduki sustantiboan aipatutako lau multzotan banatu nituen: segurtasuna eta autonomia, mugikortasuna eta irisgarritasuna, Zaintza espazioak eta emakumeen presentzia.

Irudia 7: Profila zehazteko txantiloia

ZAINZA EKOSISTEMAK LANTZEN
Debako hirigintza genero perspektibatik

- PERFILA -

Zbk:

Generoa:
Adina:
Okupazioa:
Zein kaletan bizi zara?
Herrian egiten duzu lan?
Zure aisialdia herrian pasatzen duzu?
Herriko espazio publikoetan ibiltzen zara?
Zure ardurapean pertsonarik duzu? Zein adinetakoa?

Iturria: Egite propioa

Irudia 8: Segurtasuna eta autonomia, txantiloia

ZAINZA EKOSISTEMAK LANTZEN
Debako hirigintza genero perspektibatik

- SEGURTASUNA ETA AUTONOMIA -

Burura etortzen zaizun lekua:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Espazio horien ezaugarriak:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Zbk:

Iturria: Egite propioa

Irudia 9: Mugikortasuna eta irisgarritasuna, txantiloia

ZAINZA EKOSISTEMAK LANTZEN
Debako hirigintza genero perspektibatik

- MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA -

Burura etortzen zaizun lekua:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Espazio horien ezaugarriak:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Zbk:

Iturria: Egite propioa

Irudia 10: Zaintza espazioak, txantiloia

ZAINZA EKOSISTEMAK LANTZEN
Debako hirigintza genero perspektibatik

- ZAINZA ESPAZIOAK -

Burura etortzen zaizun lekua:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Espazio horien ezaugarriak:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Zbk:

Iturria: Egite propioa

Irudia 11: Emakumeen presentzia, txantiloia

ZAINZA EKOSISTEMAK LANTZEN
Debako hirigintza genero perspektibatik

- EMAKUMEEN PRESENTZIA -

Burura etortzen zaizun lekua:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Espazio horien ezaugarriak:

1 _____
2 _____
3 _____
4 _____

Zbk:

Iturria: Egite propioa

Lau ildo hauek banan banan landu genituen; lehenik, heldutako gaiari dagozkion kontzeptu nagusiak aipatu nituen eta, jarraian, hausnartzeko tartetxo bat utzi nuen. Bitartean, norberak bere txantiloia bete zuen, eta aldi berean, nahi zuenak ozenki partekatu zituen norbere iritziak. Gai bakoitzean dinamika berdina errepikatu genuen eta, bukaeran, hausnarketa nagusienak berreskuratu genituen.

Parte-hartzaileen ekarpenak ezinbestekoak izan dira bi herriguneeen Mapa Moreak egiteko. Dena den, prozesu honek dituen gabezien inguruko hainbat puntu azpimarratu nahiko nituzke. Hasteko, baliabide gabezia nabarmenduko nuke; parte-hartze prozesu bat adierazgarria izan dadin, baliabide asko inbertitu behar da bertan. Lan ordu asko eskatzen ditu eta, horretarako, pertsona gehiago behar dira lanean. Gabezia honen ondorio da beraz, ertzetako errealitateen errepresentazio falta. Parte-hartze tailerra ordutegi finko batean egiteak, adibidez, jende asko utzi du kanpoan; egoera zaugarrian daudenak, hain zuzen.

Aipatutako guztia kontuan izanik, eta ahalik eta Mapa More zuzenena egite aldera, analisisia egiteko beharrezkoa izan da teknikarien jakituriaraz baliatzea eta, horretarako, Udaleko Irisgarritasun Plana aztertu, eta analisisian barneratu da.

5.4. Debako eta Itziarko herrigunetako Mapa Morea

Mapa Moreei buruz bildutako informazioa eta Deban eta Itziarren egindako herrigintza analisiak uztartuz, bi mapa eratu ditut, herri bakoitzeko bana. Segidan, mapa hauen eraketa prozesuan irudikatutako eraldaketa proposamenak plasmaturako dira eta, bukatzeko, ibilbide honetatik ateratako hausnarketa nagusiak jasoko dira.


5.4.1. Mapa Moreak

Mapa Morearen helburu nagusia emakumeen bizitzengan eragin zuzena duten herriko espazio publikoak identifikatzea da, eta, ondoren, arazoentzat konponbideak planteatzea eta leku atseginak sustatzea.

Hori lortze aldera, hiru espazio mota identifikatu ditugu, bakoitza kolore batekin adieraziz:



Irudia 12: Debako herriguneko Mapa Morea



PUNTU BELTZAK

- 1 Eskollera / harri-lubeta
- 2 Hondartzako paseoa
- 3 Zumardiko tunel txikia
- 4 Zumardiko atzeko paseoa
- 5 Kalbeton Zumardia
- 6 Umeen jolas parkea
- 7 Amillaga Kalearen bukaera
- 8 Ifarkale
- 9 Koxka alboko kalezuloa
- 10 Ostolaza Kalea
- 11 Paso a nivel
- 12 Anes Arrinda Pasealekuko komunak
- 13 Hautzaindegiko jolastokia
- 14 Astillero-Maxpe bidexka
- 15 San Josepe
- 16 Latzurregi Kalea
- 17 Mogel kaleko eskailerak
- 18 Mendata Ikastetxeko aparkalekua
- 19 Osio Kalea

PUNTU GORRIAK

- 7 Amillaga Kalearen bukaera
- 11 Paso a nivel
- 20 Anbulategia
- 21 Lersundi > Zumardia, zebra bidea
- 22 Errepide nagusia
- 23 Hondartza kalea 7
- 24 Gudari Plaza
- 25 Zalburdi > Gudari Plaza
- 26 Arakistain Plaza
- 27 Zesteroko Plaza
- 28 Gurutze kalea > Agirretxe Kalea
- 29 Galtzadak
- 30 Simon Berasaluzazko eskailerak
- 31 Luzaro Eskolako sarrerako aldapa
- 32 Itziarko Bidea
- 33 Astillero Kaleko aldapa
- 34 Maxpe Kalea
- 35 Kaleak, oro har


PUNTU BERDEAK

- 5 Karbeton Zumardia
- 36 Lapari Hondartza
- 37 Pablo Solozabal pasealekua
- 38 Santiago Hondartza
- 39 Miramar Plaza
- 40 Arrantzale kalea
- 41 Plaza Zaharra
- 42 Kultur Elkarteko plaza
- 43 Foruen plaza
- 44 Pilotalekua
- 45 Simon Berasaluzeko Plaza
- 46 Portua
- 47 Lasao, Casa Campo
- 48 Osioko basoa

© OpenStreetMap contributors

Iturria: Egite propioa

Irudia 13: Itziarko herriguneko Mapa Morea



PUNTU BELTZAK

- 1 Ostalera arteko bidea
- 2 Kanalako aparkalekua
- 3 Frontoi Zaharra
- 4 Salegineko aparkalekua
- 5 Galtzada Kalea
- 6 Burugorri pareko errebuelta
- 7 Prozesio Kalea > Alondegí Kalea
- 8 Gurutze Plaza
- 9 Pilotalekua

PUNTU GORRIAK

- 5 Galtzada Kalea
- 9 Pilotalekua
- 10 Mutxiarteko Kalea
- 11 Anbulategia
- 12 Autobus geltokia (goikoa)

PUNTU BERDEAK

- 8 Gurutze Plaza
- 9 Pilotalekua
- 13 Itxasperako bidea
- 14 Alondegí Plaza
- 15 Eliza atzeko belargunea
- 16 Plaza
- 17 Burugorri
- 18 Urmaela dagoen belardia
- 19 Lizarbe

Iturria: Egite propioa

5.4.2. Eraldaketa proposamenak

Asko dira gure herriek behar dituzten aldaketak, baina batzuetan praktikoagoa da proposamen konkretuak egitea. Aurretik aipatutako hiru ardatzak jarraituz, proposamen konkretuak egingo ditugu beraz.

Argizatze faltari dagokionez, identifikatutako puntu ilunak argizatzea da helburu nagusia, noski; baina horretarako baliabide bakarrak ez dira zertan LED argiak izan. Ispiluen erabilera proposatzen dute aditu askok. Ispiluak argia islatzeko baliabide bezala, eta baita, nahi izanez gero, ikus-eremu mugatua duten bidegurutze zein kurbetan.

Irudia 14: Ikus-eremua hobetzeko ispilua



Irudia 15: Argiztapena hobetzeko ispiluak Norbegan



Irudia 16: Argiztapena hobetzeko ispiluak Sevillan



Iturria: Google irudiak

Irisgarritasun faltari konponbideak jartzea erraza ez den arren, argibidea sinplea da: erruberazko aulkian doan pertsona batek ezin ditu zailtasuna izan herrian zehar mugitzeko. Horretarako, alperrikako espaloiak, espaloi estuegiak, koska eta zuloak edota malda handiegiak ekidin behar dira.

Herrian ditugun Zaintza espazioak babestu edo hobetu behar dira, eta berriak sortu. Espazio hauek elkarguneak izan behar dira, denbora komunitatean pasatzeko aukera eman behar digute.

Irudia 17 eta Irudia 18: Taldean esertzea baimentzen duten hiri-altzariak



Irudia 19 eta Irudia 20: Jolas parke estaliak



Irudia 21: Eremu publikoetan jatea baimentzen duten hiri-altzariak



Iturria: Google irudiak

Aipatutako eraldaketa proposamen guztiak herri mailan egin daitezkeenak dira, horregatik aukeratu ditugu, hain zuzen. Azpimarragarria da, bestalde, mugikortasunari lotuta, eta emakumeen segurtasuna hobetzeko asmotan, hainbat gobernu aurrera atera duten proposamena: autobus publikoetan emakumeentzako eskaintzapeko geralekuak. Honek aukera ematen die emakumeei, eguneko ordu konkretu batzuetan, autobus gidariari etxetik gertuen duten ibilbidearen puntuan gelditzeko eskatzeko.

Ekimen hau aurrera eraman da bai Bizkaia, Bizkaibus autobusetan, eta baita Donostin ere, dbus autobusetan; Deba eta Itziar herriek, ordea, ez dute horrelakorik izan.

Bukatzeko, balibideak izatearen garrantzia azpimarratuko nuke. Genero politikan ezinbestean inbertitu behar da eta, politika hauek transbertsalak direla ulertu. Horrela ez den bitartean, gure herrian libre ez izatera kondenaturik gaude.

5.4.3. Hausnarketa garrantzitsuenak

Zaintza lanak emakumeen lanak dira gaur egun, eta ondaindu gabekoak edo gaizki ordainduak eta lan balditza miserabledunak izaten jarraitzen duten bitartean emakumeek jarraituko dute lan hori egiten.

Egoera hau aldatzeko alderdi guztietatik eragin behar da: hezkuntzatik hasi, emakumeok txikitatik ikasten baitugu zaintzea gure erantzukizuna izango dela, gizarte langintzatik pasa, eta hirigintzaraino.

Zaintza lanak ikusezinak izateari uzteko pausoak eman behar dira lurralde plangintzaren eta hirigintzaren arloetatik, eta honi dagokionez, Deba eta Itziarren aurrera eramandako parte-hartze prozesutik ateratako hausnarketa garrantzitsuenak garbiak dira.

Udalek hertzetako errealitateak entzuteko intentzio espezifikoak izan behar dute; egoera zaurkarrietan dauden herritarrak zaindu behar dira beste guztien aurretik, eta hori ez da beteko gobernuen lehentasuna gehiengoaren eskakizunak betetzea izan jarraitzen duen bitartean.

Udal gobernuak langileen formakuntzan inbertitu behar du, ezinbestekoa baita udal teknikariak transbertsalak izan beharko luketen gaiez janztea, bakoitzaren arloa edozein dela ere. Hau da, ezinbestekoa da udaletik hartzen den erabaki orok genero ikuspuntua barneratzea, klase kontzientzia eta perspektiba antiarrazista barneratu beharko lituzkeen bezala.

Bestalde, parte-hartze prozesuak erreminta interesgarriak dira herritarren beharrak eta iritziak jasotzeko. Baina kontuan izan behar da beti geratzen dela iritzia emateko aukerarik izan ez duen jendea, eta gure esku egongo dela hori aldatzea. Argi dago horretarako baliabide asko behar direla, eta hori izan da, agian, Deba eta Itziarren burututako prozesuen akatsik handiena.

Baliabide murrizak eukitzeak guztiz kolokan jartzen du egindako lanaren emaitza. Egindako hausnarketak, beraz, partzialak izango dira ezinbestean.

Esandakoak esanda, nahiko nabaria da, Deba eta Itziarko herrieguneei dagokienez, hiru elementutan jarri beharko litzakela fokoa. Batetik, emakumeek duten berdur sentipenean eta, jasotako testigantzen arabera, argitasun falta da berdurraren eragile nagusia. Bigarren ardatza irisgarritasun falta izango litzateke. Gure herriak ez daude erruberazko aulkian mugitzeko prestatuta, eta hala beharko lukete, irisgarritasun mugak limitazio handia baitira emakumeen bizitzetarako. Azkenik, garrantzia berezia eman bihar zaie Zaintza espazioei. Kontsumo espazioetatik kanpo dauden eremu atseginak behar ditugu; erlaxatzen lagunduko diguten espazioak, etxetik gustora ateratzea eragingo digutenak, jendea ezagutzeko eremu seguruak edota eurtik babestuko gaituzten espazio estali eta ederrak.

6. Ondorioak

Zaintza Ekosistemak sortzako landu eta barneratu behar ditugu bi kontzeptu garrantzitsuenak transbertsalitatea eta interseksionalitatea dira. Batetik, gobernuek genero ikuspuntuaren presentzia bermatu behar dute, modu transbertsalean. Eta bestetik, aurrera eramaten diren politikek ikuspegi interseksionalaizan behar dute, emakumeak anitzak direla ulertu eta argi izan problematika ezberdinek zeharkatzen dituztela.

Gaur egun, dugun Zaintza sistema pertsonon generoaz, arrazaz, etniaz, desgaitasunaz, sexualitateaz, klaseaz edota nazionalitateaz baliatzen den zapalkuntza mekanismoa da, eta, beraz, egin behar diren aldaketek errealitatea bere osotasunean aztertu behar dute, ñabardura guztiak kontuan hartuz.

Alternatiba gisa, Zaintza sistema publiko-komunitarioa irudikatu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eta horren bidean egingo du borroka datozen urteetan, eta Instituzioen lana da herri mugimenduek egiten dituzten errebindikazioak agenda politikoan jartzea.

Zaintza Ekosistemak sortzeko, besteak beste, ezinbestekoak da inguru bizigarriak eraikitzea, eta horretarako, ikuspuntu feminista Lurralde Plangintzaren lehen lerroan egon behar da. Gure lurraldea ez dago zaintzeko eta zainduak izateko prestaturik, eta horretarako, gobernuetako teknikariak eta administrazioako langileak bide honetan hezi behar dira. Bestalde, gizarte-eragileen interesak entzuteko espazioak sortu behar dira, baita hirigintzari buruz hitz egiterakoan ere. Gobernuen eta herritarren arteko komunikazioa hobetzen duten bideak eraiki behar dira, eta gobernuek berebiziko garrantzia eman behar diote egoera zaugarrienetan dauden herritarren beharrei erantzuteari.

Zaintzak gure komunitateen erdigunera ekarri behar ditugu, protagonista bilakatu behar ditugu. Egiteko modu berriak sortu behar dira, kapitalismoaren dinamiketarik alden, eta bizimodu justoak eraiki. Helburu honi helduz, gure auzoetatik has gaitezke, hirigintza feministak markatutako pausoak jarraituz, adibidez.

7. **Bibliografia**

Albeniz, A. & Alonso, A. (2009). Hiria eta generoa, garapenaren eta egunerko bizitzaren eredu. *Getxo.eus*.

Asher, F. (2004). *Los nuevos principios del urbanismo*. Alianza editorial. Madrid.

Baldellou Plaza, A. (2020). El urbanismo como eje vertebrador de la sostenibilidad urbana. Importancia de definir, regenerar y repensar nuestras ciudades y territorios. *Cuadernos de estrategia*, (206), 253-300.

Bizitzak erdigunean, Euskal Herriko Koodinadora Feminista (2022). Zaintza sistema publiko-komunitario feminista baterantz.

Buckingham, S. (2011). Análisis del derecho a la ciudad desde una perspectiva de género. *SUGRANYES, Ana y MATHIVET, Charlotte. Ciudades para tod@s. Por el derecho a la ciudad, propuestas y experiencias. Santiago, Hábitat International Coalition*, 59-64.

Butler, Judith (2007). *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*. Paidós.

Col·lectiu Punt 6 (2016). Mujeres trabajando: Guía de reconocimiento urbano con perspectiva de género. *Comanegra*.

Daly, M. & Lewis, J. (2000). «The Concept of Social Care and the Analysis of Contemporary Welfare States». *The British Journal of Sociology*, 51(2): 281-298

De Gregorio Hurtado, S. (2019). Regeneración Urbana con Perspectiva de Género en el marco de la Agenda Urbana del País Vasco. *Bultzatu 2050*.

De Simone, L. (2020). Gender-conscious urbanism and urban planning. *Gender Equality. Encyclopedia of the UN Sustainable Development Goals*, 685-695.

Etxebide (2020). Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena, genero-ikuspegitik. *Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio saila*.

Gilligan, C. (2013). La ética del cuidado. *Barcelona: Fundació Víctor Grífols i Lucas*.

Gutiérrez Valdivia, B. (2018). Del urbanismo androcéntrico a la ciudad cuidadora. *Hábitat y sociedad*, (11). 65-84.

Hiria kolektiboa (2010). Hiri analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza. *Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*.

Hiritik at (2021). Zaintza ekosistemak, elkar zaintzeko hiriak. *hiritik-at.eus*

- Ilárraz, I. (2006). Movilidad sostenible y equidad de género. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria*, (40), 61-66.
- Jordan, R. y Sabatini, F. (1988). “Economía política de los desastres naturales: prevención y capacitación”, *EURE*, 14, 53-77.
- Leturiondo-Aranzamendi, A. (2020). De la Planificación Territorial a la Agenda Urbana. Un recorrido con visión de género. *Ciudad Y Territorio Estudios Territoriales*, 52(203), 45–56.
- Mendizabal Tolosa, E. (2008). Hernaniko Hiri Debekatuaren Mapa, Jendetze lanak. *hernani.eus*
- Murgibide (2009). Genero ikuspegitik hirigintza analisisa, Deba. *deba.eus*
- Muxí Martínez, Z. & al. (2011). ¿Qué aporta la perspectiva de género al urbanismo?. *Feminismo/s, Instituto Universitario de Estudios de Género de la Universidad de Alicante*, 17, 105-129
- Ortiz Escalante, S. & Gutiérrez Valdivia, B. (2015). Planning from below: using feminist participatory methods to increase women's participation in urban planning. *Gender & Development*, 23(1), 113-126.
- Paricio, A. (2019). Manual d'urbanisme de la vida quotidiana: Urbanisme amb perspectiva de gènere. *Ajuntament de Barcelona, Àrea d'Ecologia Urbana*.
- Sánchez de Madariaga, I. (2004). Urbanismo con perspectiva de género. *Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer*, 99, 10-27170.
- Sánchez de Madariaga, I. (2009). Vivienda, movilidad y urbanismo para la igualdad en la diversidad: ciudades, género y dependencia, *Ciudad y territorio estudios territoriales*, 581-597.
- Sánchez de Madariaga, I. (2016). Genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan. Ekintza-proposamenak. *Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila*.
- Sánchez de Madariaga, I. & Novella-Abril, I. (2020). Género y urbanismo en España: experiencias y perspectivas. *Ciudad y Territorio Estudios Territoriales*, 52(203), 5-12.
- Salcedo Hansen, R. (2002). El espacio público en el debate actual: Una reflexión crítica sobre el urbanismo post-moderno. *Eure (Santiago)*, 28(84), 5-19.
- Telleria Andueza, K. (2014). Lurralde bat; hainbat hizkuntza, hainbat modu. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (90), 25-40.

Tobío, C. & al. (2010). El cuidado de las personas. *Un reto para el siglo xxi*. Barcelona: *Fundación La Caixa*.

Zuñiga Ruiz de Loizaga, M., Llorente Arretxea, O., & Valero Alzaga, M. (2022). Zaintza sistema publiko-komunitarioak eraikitze bidean sakontzen. Zaintza Sareen fenomenoaren azterketa Gipuzkoako lau udalerrietan. *Inguruak*, (72), 41-59.